MIKEL ANTZA

Odolaren usaina

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1987 Mikel Antza
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1987ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Biolentziaren erresumena

Ezaguna da narradore hasiberrien truko erabiliena: krimena. Hilketa baten inguruan narrazio irakurgarririk sortzea erraza da. Agian errazegia, esaldiak merezi duen erlatibizazioa aurretik aitortuta. Zailena bortxa transzenditzea da, eta alde horretatik ipuin-liburu honek ihes egin dio errazkeriaren tentazioari. Haatik zorretan gaude Mikelekin. Trukean arreta zor diogu bederen.

Euskal komunikabideek biolentzia «indarkeria»rekin hain arinki identifikatzera eraman nahi gaituztenean, kazetarien lan alienantearen konplize izan daiteke literaturgilea. Areago gurea bezalako literatura nobatoetan. Bortxak saldu egiten du, eta kazetari gehienak hortik bizi dira, manikeismo sozialaren arabera «keria» guztiak erasten badizkiote ere. Arlo horretan kontrainformazio mota bat izan liteke literatura.

Narratiba-liburu bateko izenburuak baldintza bat bete behar du gutxienik: filme batenak adineko erakargarritasuna bere baitan izan, eta hortik aurrera hasierako sujestioa transzenditu.

Hori behintzat badute elkarrekin narratibak eta zinemak. Baina ezin izenburuan gelditu.

Liburuak atzetik aurrera begiztatzeko ohitura dutenak honez gero konturako ziren liburuko azken partean ezarri diren oharretaz, ia osorik egunkarietatik hartutako zatiek osatuta. Azala pasa eta sarritan hain literarioak diren oharrak irakurrita zer edo zer ulertu duela pentsatzen duenak hobe du beste nonbaitetik hasi. Oharretan ageri diren gertaera beridikoak espreski daude dauden tokian, esan nahi baita bildumaren bukaeran, eta beren funtzioa hauxe baino ez da: ipuinok irakurri eta gero guztioi burura datozkigun erreferentzia errealak paperean jartzea. Ez alderantziz.

Pisu berezia hartzen du liburu honetan narratzailearen ikuspegi-hautaketa. Biktimaren begietan ala hiltzailearenetan aritzea ez da gauza bera, eta esanguratsua gertatzen da kasuan kasuko Mikelen aukera zein izan den ikustea. Horrek ematen digu hurbilketarako aurreneko datua. Baina segi dezagun hurreratze-saioarekin.

Liburuari izena ematen dion ipuinarekin hasiko gara. «Odolaren usaina» dugu, hain zuzen, odol-isurketarik gabeko ipuin bakarra, eta horixe dela kausa, ikaragarritasunak goia jotzen du liburuko azken ipuinean. Herri hau ez da tontoa, badu bere subkonsziente kolektiboa, eta ipuin honen irakurketak Euskal Herriak bizi izan dituen krimen sentituenen oroitzapena dakarkigu. Luzia Urigoitia hil zuzen biharamunean irakurri genuenontzat hotzikarazlea izan zen «Odolaren usaina». Baina bada besterik.

«Hamalau heriotzena» bertsio ofizialak desmontatu beharraren aldarrikapena da. Amodioaren inpotentziak dira «Elur eternalen...» ipuinaren motorra. EEBBetatik iristen zaigun biolentziaren ikusmoldeari zuzendutako mendeku ironikotzat jo genezake «Komix». Arrazakeriaren agerpenik monstruosoenak azaltzen zaizkigu «Zurrumurrua oinetan» izenekoan. Azkenik, «Bederatzigarren biktima» deritzonak guztiok barruan lozorroan daramagun hiltzaile txikia desenmaskaratzen du. «Eranskinek» kontrapuntu umoretsua ekarri nahi lukete, algara batzu ere botatzeko parada, zergatik ez.

Narratzaile iaioa zela jadanik frogatua zuen Mikel Antzak duela hiru bat urte argitaratutako «Lehen Bilbuma 82-84»ean. Oraingoan, trapezioarekin jauzi luzea eman nahi izan du «Bigarren Bilduma» honekin, sarerik gabe, eta ziur gaude ez duela ekilibrioa galdu aintzineratze horretan. Jauzi mortalez airean dagoelarik, biolentziaren munduaren erretrato bat egin nahi izan digu egileak, eta orain irakurlearen txanda da, hain mortala ez den jauzia egiteko. Biolentziaren erresuman zehar.

Josu Landa

Elur eternalaren zuriaren pareko

Azal zurikoa zen. Gure mendietako betiereko elurraren zuriaren pareko. Arroz-hautsen beharrik ez zeukan haren bisaiak. Arroserantz lerratzen zen zuritasun hartan ezpain haragitsu gorriskak sortzen ziren. Eta begietan esmeralda bi zituela pentsatu nuen segituan. Inori grisez tindatzea otu zitzaion esmeralda parea. Urre zaharraren koloreko ile adats luzeak mototsa single batez lotzen zituen. Eserita, bizkarra zut ikusi nuen lehen unetik, hura izan zen enetzat edertasunari buruz eman zitekeen exenplurik estonagarri eta, eraberean, lasaigarriena.

Ez nuen instant batez ere begirada aldendu haren iruditik ikastaroko lehen hiru ordu luzeetan. Hark behin bakarrik so egin zidan. Irakaslea, guztiz arrotza zitzaigun hizkuntzaren lehen arauen berri ematen ari zitzaigun. Hark tinko so egiten zion irakasleari, aldian-aldian makurtu eta orri milimetratuzko bere kaieran zerbait izkiria-

tzen zuen, idazkera itxuroso baina azkarrez, berriro ere burua jaso eta irakasleaganantza begiratzeko.

Noizik eta behin boligrafoaren kapela ahora eramaten zuen. Orduantxe ikus nitzakeen bere perlazko hortzak. Perla biltzailerik anbiziatsuenarentzat amets liratekeenak. Hortz xuri irregularrak, mingain xuabe izan behar zuen batez bustiak. Hark behin bakarrik begiratu zidan. Beranduago, gu bion artean sortu zen konfidantzak horretarako bide eman zuenean, aitortu egin zidan lehen begirada horretan zehazki adieraz ez zezakeen zerbait somatu zidala. Izutu egin zuen zerbait, baina amildegiaren ertzera erakartzen duen izuz. Horregatik, seguruaski, irtetzerakoan zigarreta bat eskatu zidan. Sua ere eman nion, eskailerak nola jeisten zituen so geratu nintzaion, eta briketa ene zigarreta piztu gaberik gorde nuen sakelean.

Orduerdi lehenago egon ohi nintzen eskola aurreko tabernan eserita, kafesne izena merezi ez zuen isurgai zikinean kroasana behin eta berriro murgilduz; filtroraino erretako zigarreta blondak bata bestearen atzetik hautsontzi gai-

nezkatuan amatatzen. Geroxeago, bapatean, klasera sartzeko ordua baino hamar minuta lehenago, bera agertzen zen. Txanponak zenbatu gabe uzten nituen mahain gainean, beti sobera, eta haren irudiaren atzetik abiatzen nintzen. Bere ibilkeraren kadentziari jarraikiz olatuak sortzen ziren ene baitan. Ezin ekidin eta apenas jasan nezakeena zen hura. Gonak jazten zituenetan, eta eskaileretan gora zihoala, eskuarki ikusten ez nuen berna zati berriaren bistan plazer hartzen nuen, begirada arriskugarriki tinkoz, ikaskideren bat ohar bait zitekeen ene interes gehiegizkoaz.

Ikasgelako atera iritsi baino lehenxeago hurbiltzen nintzen bere albora, eta hizkuntza arrotzean gaizki, ahoskaturiko «egunon» baldar batez agurtzen nuen, ondoren ene ohizko eserlekuan jezartzeko. Beraren parez pare. Lehen egunetik genuen ikaskide guztiok geure kokalekua hautatua. Eta eskola-paisaia finkotu hartan ez zuen ezerk esistitzen, ez bazen enetzat soilik distirapean zuen haren gorputzak.

Astebete inguru igaro nuen gisa horretan. Ezer gutxi eginez. Zer jaten nuen ere apenas

konturatzen nintzelarik, gosea begietatik asetzen zitzaidan, ezinegona bizpahiru tabako paketeren keaz itotzen saiatzen nintzen, ez nintzen jendeak esaten zidanaz ohartzen, ez nuen deus ulertzen. Sukarraren poderioz hiria gantz koipetsu baten distirapean nekusan.

Non bizi zen banekien. Banekien ere bakarrik bizi zela. Posta bulegora joaten zela sendikoek igortzen zizkioten txekeen bila. Gauero, bederatziak girian norbait telefonatzen zuen etxetik hurbilen zeukan kabina publiko batetatik. Berarekin gurutzatzen nituen hitzerdiei eta begirada urriei esker jakin nezakeen guztia banekien. Beste guztia ondorio subjektiboegiak eta lilura zorabiatsua zen. Ez nuen oraino bere azalaren suabetasun teorikoa praktikan dastatzeko aukera ttipiena ere ukan, kasualitatezko enkontruak saiatu arren.

Lokartzen nintzen bakoitzeko, amets berberaren aldaketa niminoak besterik ez ziren irudiak jabetzen ziren ene paradisuaz. Gauero, gauza bera, hura agertzen zen; goizaldero berdin, ene alboan zegoen, elkarrekin geunden. Musukatu behar genuenean, nire bizkarra ferekatzeko

besoa luzatzen zuenean, zetazko izarez estalitako ohantze baten aitzinean elkarren aurrean bilutsik geratzen ginen bakoitzean, eten egiten zen. Ilunpean, oheratzerakoan alboan abandonaturik utzitako zigarreta paketea xerkatzen nuen. Azken zigarreta bat pizten nuen: eguneko lehena. Dutxatik atera eta gorputza koloniaz igurzten nuen, galtzarbeak ere lurrin-gozotzen nituen, garbitu-berriaren usaina galdu ez zuten erropa plantxatuak janzten nituen, eta orduerdi lehenago eskola aurreko tabernan eserita nengoen.

Astebete inguru igaro nuen egoera horretan, kanpoko itxurak barnean neraman ekaitza sala zezan utzi gaberik. Bigarren asterako ene jokabidea aldatzea deliberatu nuen: argi ikusi nuen harengana hurbiltzeko neukan bide bakarra hizkuntza madarikatu hura ikastea zela. Irakaslearen aurpegia zimurdura fonetikoz gurutzatua zegoen; zenbait hitz ahoskatzerakoan jaulgitzen zitzaizkion listu xortak ikusi nituen; eta sujetoaren ondotik aditza ezarri behar nuela, beti, ikusi nuen. Zenbakiak, koloreak, zenbait esaldi ergel... Hitz batez, ene bizitza osoan sekula bu-

ruratu ez zitzaizkidan txorakeriak esaten aurkitu nuen neure burua. Irakaslea ohartu zen, nonbait, ene jarrera aldaketaz, eta ordurarteko mespretxuzko iruzkinak adorezko bilakatu ziren. Beste ikaskideen aurrean exenplutzat jartzen ninduen, niri hizkuntz hura ikastea zailagoa zitzaidalakoan. Hark ere gehiagotan begiratzen zidan; batez ere irakaslearen txorakeriei egoki erantzuten nienean, irribarreño bat somatu uste nuen, haren ezpain miresgarrietan pliege eta marrazki sinestezinak osatuz. Hark irribarre egiten zuenean gibela ere alaitzen zitzaidan.

Ez genuen hilabete lehen horretan goizetako hitzerdia baino gurutzatu. Bere ahotsaren errejistro gehientsuenak ezagutzen nituen, niri zuzenduak ez izan arren. «Nik uste dut...», edo «nire eritziz...», zioen bakoitzeko zentzumenak hari lotzen zitzaizkion.

Gauetan berarekin amets egiten jarraitzen nuen. Agian, lokartu baino lehenago, orain ere egiten dudan lez, konturik haundienaz eta zehaztasunik zorrotzenaz bere irudia ene irudimenean berreraikitzen nuelako. Bera enea izan zedin desio beldurgarriak eztarria eta urdailak

estekatzen zizkidala esnatu ohi nintzen. Eta ordubeteren buruan eskola aurreko tabernan eserita nengoen, bera agertzen zen kale kantoiari so.

Goiz batez neure buruari ezarritako kafetegiko zita huts egin nuen. Bezperako ajeak garuna iltzekatzen zidan mailu sendo baten kolpeen pean. Klaseak aspaldi hasia behar zuen eskolara heldu nintzen ordurako. Eskola alboko parkera zuzendu nintzen. Jubilatuek, turista unatuek eta parkeko lasaitasunean ikasgaiak berrikusten zituzten unibertsitariek betetzen zituzten eserlekuak. Usoak saldoka hurbiltzen ziren maitasunaren parodia eraiki nahian ogi apurrak eskeintzen zizkieten atsoen baranora. Txori ttipiek ere hegalaldi azkarrez berentzat ez ziren ogi apurrak lapurtzen zituzten. Nire herrialdeko gereziondo bat bazen zuhaitzen artean. Goizerdiko eguzkiak giroa epeltzen zuen. Lorategia ureztatzeko gailuak martxan ari ziren itzalpeak freskatuz. Bertan eseri nintzen zigarreta bat erre asmoz, ohizkoari hutsegiteak ematen duen etsipen ubelaz tristaturik. Gereziondoa aurrean nuen, hiriko za-

ratak urrun. Beste zigarreta bat piztu nuen, eta lozorro sakonean murgildu nintzen.

–Egunon, Issei...

Ahots goxo hark esnatu ninduen. Bera zen, irribartsu ene harriduraren aurrean, eskolako liburuak bularren kontra estutuz, gona xuri arina zeraman soinean, ilea solte, begirada enetzat. Harriduratik atera nendin betarik eman gabe mintzatu zen berriro:

–Goizean ez zara klasera etorri..., baina ez duzu askorik galdu..., oso aspergarria izan da klasea...

Isildu egin zen ostera. Aurrean neukan. Zutik. Niri mintzo. Eta nik aski nuen begiratzearekin, ez nengoela ametsetan pentsatzearekin. Aurpegi estrainoa nuen nonbait, barre egin eta berriro hitzegin bait zidan:

–Ze? Ez al didazu zigarreta bat eman behar?

Elkarrizketa baldar harilkatzen zen gure artean. Eten gabe erretzen genuen, eta gure begiradetan desio argi bat hasi zen isladatzen. Halabaina, bere gorputzak kristalezko harresi bat altxatzen zuen gu bion artean. Esperantza xaloena

ere harresi haren kontra zanpatzen zen. Eskolako gauzetaz mintzatzen ginen.

–Beldur naiz datorren asteko esamina ez dudala erreusituko –esan zidan–. Subjuntiboa noiz erabili behar den ez dakit.

–Nahi baduzu esplikatuko dizut –ihardetsi nion–, ez da eta batere zaila.

Neure apunteak atera nituen. Ahal bezain hozki esplikatu nion subjuntiboa erabiltzeko ala ez, kontuan hartu behar zuela esaldiak nahikunde, desio, zalantza, sentimendu edo beharrezkotasuna adierazten zuen. Kaieran idatzirik nituen adibideak irakurri nizkion.

Une horretan ijito eskale bat hurbildu zitzaigun. Emakume gazte bat, haurra besoetan zeramala. Emakume zabal hark hunkitu antzean so egin zigun, eta bere umeari esnea eros ziezaion txanpon batzu eskatu. Hitzik gabeko ezezko batez erantzun genion bere eskakizunari. Orduan, ama gazte horrek, haserre ttipiena erakutsi gabe begiratu zigun. Lehendabizi niri, gero Reneeri sakonki, arakatu nahi izango balu bezala, eta azkenik berriro ere niri begiratuz mintzatu zen:

–Emakume honek hilekoa dauka –irribarre batez agurtu gintuen, eta alde egin zuen.

Reneek, ez bait zuen guztiz ulertu ijitoaren esaldia, ea zer esan zuen galdegin zidan.

–Hilekoa duzula esan dit.

Begien sakonera so egin zidan:

–Etorri nahi duzu etxera?

Etxera sartu ginenean begi-kolpe batez aztertu nuen aurrerantzean ene bizilekua ere izango zen gela ttipia: altzari eta elektrodomestiko modernoekin kontraste eginez, atetik ezkerretara ohe zahar bat, eskubitara armairu handi bat, bohardilako leiho pean mahai bat, zoko batetan lababoa. Berak atea itxi eta elkarren aurrean geratu ginen. Begira. Eskubiko eskua hartu zidan eta bere ezkerreko bularrera eraman zuen mugimendu azkar baten laguntzaz. Zetazko atorraren azpian senditu nuen bere diti-burua gogortzen. Lehen aldia zen elkar ikuitzen genuela. Begietara so egiten zidan, ene erreakzioak ikertu nahi balitu bezala. Esku librea hartu zidan eta bere alualdera eraman. Gonaren gainetik nabaritu

nion konpresa. Besarkatu egin ginen eta berak ezpaina horzkatu zidan, odol hari bat ateratzeraino. Jantziak galdu genituen, eta bera ohe zaharrean pausatu zen biluzirik, besoak buru gainera plegatuz.

–Zatoz... –zingiratsu bat esan zuten haren ezpainek. Lurrean belaunikatuz, burua bere bularretan ezkutatu nuen, eta ene bizitza osoan dastatutako fruiturik gozoena sentitu nuen ene haginen erasoei ihes egin nahian.

Isilik zirauen berak. Burua altxa nuen, bere bisaia masail gorriturik ere barea zen, ez zuen intziri nimiñoena ere jaulgi bere aho mirestuak, eta haatik ene ahoan bero senditzen nuen bere bularretik isurrerazitako odola. Ametsik inspiratuenean ere zailki asma nezakeen zuritasuna zeukan bere sabelalde birjinak. Ezpainez markatu nuen ibilbide gorriska ezkerreko bularretik oihan blondaraino. Mingainaz musukatu nion alu barnealdea, bere eztarritik arnasestuaren erritmora oihu ttipi bat errepikatzen zelarik. Odoletan murgildu nuen zakila. Orduan bakarrik mugitu zituen besoak buru gainetik ene bizkarrean il-

tzekatzeko. Gero, emeki hastapenean, ez dakit zenbat denboraz zamalkatu ginen.

Lokarturik bezala geratu zen ene azpian, berna zabalik. Odoletan bustirik atera nuen zakila, eta gorputza albo batetara erortzen utzi nuen. Lainoaren urruntasunetik, eurijasaren presentzia nabarmenera igaroa nintzen. Eskura ezina zena, enea bilakatu zen instant neurgaitz batzuren buruan. Enea zela senditzen nuen, baina eneago nahi nuen, neurea nahi nuen. Estuki lotu nintzaion ostera bere gorputz epelari. Egun hartan ez zen bederatziak girian etxetik hurbil zeukan telefono kabinara jeitsi.

Goizaldean ohartu nintzen lepoan neukan zauriaz. Haren hortz xuri irregularrak gupidagabeki barneratu ziren han, ni ohartu ere ez nintzelarik noiz.

Eskolara iritsi baino bizpahiru kale lehenago banantzen ginen. Gu bion artean ezer berezirik ez zegoela itxurak mantentzea deliberatu genuen, gaiaz zuzenki mintzatu gabe. Beti bezala esertzen ginen, elkarrengandik urruti. Oroimenera, begiradaz nireganatu nahi nueneko garaia zetorkidan. Eta sufritu egiten nuen. Haren be-

giak ez ziren nigan pausatzen. Sufritzen nuen haren gorputzaren mututasunarekin. Enegandik urrundu orduko isildu egiten zela iruditzen zitzaidan. Berarekin bat izateko, edo hobe esan, bat egiteko, pentsamendua sortu zitzaidan. Urrunekoa desiratzearen antsia itzali ostean, hurbiltasuna ez zitzaidan aski. Orain uste dut, eperik gabe iraun ahal izango nukeela eguerdi hartan parkean esnatu ez banindu, eta garrantzitsuago, ijitoa mintzatu zitzaidan egun hartan bertan elkartu izan ez bagina. Epe gabe iraun ahal izango nukeela hura miresten. Denbora eta espazioaren distantziek erakusten didate ez nintzela, orduan, nire begiraden esanahiaren jabe. Eta, areago, ez nuela harengandik halako erreakziorik espero.

Klasean ikusten nuenean, sinestezin zitzaidan ordu batzu berantago elkarren ondoan egongo ginela. Eta hala izango zelako ez nezakeen jasan parentesi hori, parentesi barregarri hori. Baina berak ez zidan begiratu ere egiten, bere kaieran txukun idazten segitzen zuen. Eta klase amaieran, deskuidoan bezala hurbildu eta zigarreta bat eskatzen zidan. Ez zizkidan hatzak ikuitzen bere gela ttipira iritsi arte.

Eta han zauritzeraino maitatzen genuen elkar.

Haren odol tanta bakar bat ere galtzea eromena zen. Gorputz osoa milikatzen nion, oharkabean eginiko zaurien xerka.

Zakila erroraino sartzen nion; erroraino hartzen ninduen. Mingainaren luzerak ahal zuen guztia barneratzen nintzen haren ahoan. Eta gero, amaitzerakoan, bere gorputza zauriak sendatzen zizkion olatu bat igaro izan balitzaio bezala geratzen zenean, negar egiten nuen neure ezintasunagatik. Eta sekulan baino bakartiago sentitzen nintzen, ene gorputzarekin, ene arimarekin. Haren azalaren azpira sartu nahi nuen. Labain batez azala bere gorputzetik bereizi, eta barnean sartu. Bere odolean desegin. Haren biriketara iristen zen aire hori eta ez besterik arnastu. Ez nion berari horrelakorik esan. Ez ginen mintzatzen ia ezer, gero eta gutxiago. Gure gorputzak mintzo ziren, eta hitz guztiak alferrikako egiten zituen trebeziaz mintzo ere.

Hiru hilabeteak amaitzera zihoazen. Ikastaroa amaitzera zihoan. Baina niri ez zitzaidan, hasiera batetan, horrek ezer larririk erakar ziezagu-

keela pentsatzea bururatu; harik eta egun batez, klaseak amaitzerakoan, nigana zigarreta eskatzera hurbildu gabe, ni konturatu ere gabe, alde egin zuen arte.

Parkera joan nintzen, lehen enkontru hartako eserlekura, esperantza ttipi eta inozo batek gidaturik. Edo desesperantzak gidaturik ziurrago. Gero agian edan egin nuen, mozkortu egin nintzen, mozkorrak alde egin zuen, negar egin nuen, malkoak agortu egin zitzaizkidan, oihu egin nuen, eztarria marrantatzeraino, baretu nintzen.

Ez nintzen hurrengo egunean eskolara joan. Ez dakit bera joan ote zen. Baina bederatziak hogei gutxiagotatik, bere gelako ate alboan nengoen zelatan. Isilik eta lasai. Bederatziak bost gutxiagotan ireki zuen atea. Nire ezpainez estali nion arnasa, eskubiko aiztoaz lepoa ebaki bitartean. Azken biziarekin jaulgi zuen odolak ene eztarria ito zuen. Soinadarren azken dardarizoekin erori zen zolura.

Atea ostikada batez itxi nuen. Odoletan blai etzan nuen haren gorpua, bera osoa zena, ohe zaharrean. Ez zitzaidan bururatu ere egin gor-

puarekin larrua jotzea, gero hainbatetan galdegin eta intsinuatu duten bezala.

Gero eta eneagoa zen.

Ez dakit zenbat egun izan ziren.

Maindire odolduetan etzaten nintzen. Zoriontsu eta haren edertasuna enegan senditzen nuela.

Atean jo zuten. Oinotsak, deihadarrak, garraisi histerikoak. Su-hiltzaileek hautsi zuten atea aizkoraz. Polizia batek eskuak lotu zizkidan. Beste batek zoroaldi batetan jo egin ninduen. Inspektorea heldu zenean zigarreta bat eskeini zidan, baina nik blondak besterik ez nituela erretzen jakinarazi nion, eta gainera zuela denbora asko ez nuela batere zigarretarik erre.

Gorpuarekin zer egin nuen galdegin zidaten, gela guztia zipristintzen zuten odol orbain sikuek argi uzten bait zuten hila zela. Inspektoreak uler zezan moduan esplikatu nion, ez nion esan nigan zegoela, berak uler zezan moduan esplikatu nion guztia. Haiek uler zezaketen modu bakarrean. Eta hala ere mila aldiz gehiago galdegin didate guztia, gorpua non gorde nuen zen haien obsesio bakarra...

Gaur, abioia Tokyora iristerakoan gure mendietako elur eternalaren zuria ikusiko dut.

Bederatzigarren biktima

Gauak berdin laztantzen ditu gizakiak oro. Naturaren botere berdintzailean beste ezertan baino gehiago erreparatu nahi dutenek behintzat hala diote. Gauaren izara beltza guztientzat erortzen dela berdin. Inozo batentzat baino gehiagorentzat gerta daiteke lasaigarri pentsamendu hori; eta ohe malgu batetako maindirepetan bildu eta buelta erdia eman orduko lokartzen dira, amets egiteko. Lokamuts izugarrienak zurrungen bestaldean jazotzen direla sumatu nahi gabe.

Gaua hiriko biztanleak laztantzeko apaintzen ari zen. Lasaitasun brisara batek freskatu zituen bero galgatan desegitear egon ziren galipotezko bideak, berunezko txapak eta adokin gogorrak. Adreiluak hamaikagarren aldiz egosiak ziren hormetan, eta kareak ere protesta egina zuen egunean zehar. Limako auzune periferiko batetan, gizon batek bere erraiak marmarrean sentitu ditu eguzki gorriaren azken errainuek zinkezko teiladiak ferekatzerakoan. Okelik gabeko ajiaco

gaziegi bat irristatu zaio hortz ahulen artetik, latoiorrizko goilara higatu baten laguntzaz. Arkakuso batek kosk egin dio txonkatilean. Trebezia paregabez bi hatzekin harrapatu eta hortzetara eraman du gizonak, krask batez zomorroaren oskola hautsiz. Begirada azkarrez bilatu du katua, zoko batetan kizkurtuta, kokilduta. Ostikada bortitzaz uxatu du.

–Hoa! Debru! Akatuko haut! Uste baino lehenago afalduko haut debru ahalena!!

Berrogei watt-eko bonbila zikin baten pean ispilu hautsi bat dago zintzilik. Belarritik belarrirainoko irribarrea bota dio bere cholo aurpegi beltzaranari. Eskuetara ttu egin ondoren ile adats koipeztuak atondu ustez ari da. Praketako poltsiko sakonetik zigarreta bildu bat atera, piztu eta txabolako ataria markatzen duen oihala bultzatuz kalean dago. Gaua da. Eta irribarre egin dio ilargiari. Beste inori irribarre egiterik ez duelako, nonbait.

Lima osoan kantatzen den doinua txistukatuz doa txaboladia zeharkatzen duten izenik gabeko kalexketan zehar. Doinuaren erritmora balantzatzen du eskuan daraman plastiko beltzezko pol-

tsa. Gasoleozko bidoi hutsetan eseririk dagoen agure koadrila batek ketxueraz agurtu du:

–Adio, Jose! Ze, neskatan...!?

Agureek barre egin dute, barre maleziatsuz egin dute barre. Bai bait dakite aspaldian ez dela inor sartu Jose choloaren txabolan, are gutxiago neskatxarik. Baina Jose ez da agureekin haserretzen. Hitz egiten dioten bakarrak dira, eta bere barnerako irribarre eginez, hitzik esateke jarraiki dio bere bideari plastikozko poltsa balantzatuz, txaboletatik igarotzerakoan txakur kateatuak zaunka jarriz.

–Iritsiko al zaizue zuei ere azken ordua! –garraisi egin die Josek, eta barrezka segitzen du, biztanle ilunek protesta egiten duten artean.

Hegoalderantz, txaboladia amaitzen deneko lekuan hasten da hiriaren zabortegia. Eguneko lehen printzekin iristen dira hara hiriko kaleak korritu dituzten kamioiak, eta bertan hustutzen dituzte bolketeak. Berdez jantzitako zabor-biltzaileek maskarila horiz babesten dute aurpegia, eta guztien garunean tabernara iritsi eta agoar-

diente kopa irenstea dago helburu gisa markaturik. Hilabeteko lehen egunetan, ezkongabeak diru beharrez dabiltzan puten bila abiatzen dira; hilaren hamarretik aurrera, ohe azpitan botatako aldizkari pornografiko horiztatuak erreskatatu ohi dituzte. Ezkonduak hilabete osoan zehar joaten dira putetara, haurrak izateagatik jasotzen duten plusa hiriko puta merkeenekin xahutzera, hauek ez bait diete sekula oroitarazten beren eskuetako kirats alderagaitza.

Txaboletako lehen koadrilak agertzen dira kamioi berdeak aldendu orduko. Hamabosthogei urtetako gazteak. Koadrila bakoitzak badu bere buruzagia, eta erraza da burua nor den antzematen, normalki zabor-biltzaileek daramatena bezalako maskarilaz estali ohi du eta muturra, eta koadrilako mutilek zerbait balios topatuz gero, lasterka erakusten diotelako. Koadrila-mutilek zurezko pintza batez ixten dituzte sudurzuloak. Zabortegia koadrila bakoitzari dagozkion eskualdeetan mugatua egon arren alderaezinak gertatzen dira noizik eta behineko peleak. Gerta daiteke diskuratuta koadrila batetako mutil bat beste koadrila baten terrenoan barneratzea eta

ez ezer gertatzea; baina inbaditua izan den terrenoko koadrila zelatan badago, harrapatu eta ez dute markatu bitartean libre utziko. Gerta daiteke ere, inbasioa planifikatua egotea, zelatariak besteen eremuan kargamentu baliosen bat jausten ikusi duelako. Horrelakoetan borroka latzak gertatzen dira, eta maiz desgrazia pertsonalak ere bai. Koadrila garaileak mozkortuz ospatzen du bere nagusitasuna; galtzaileek berriz zauriak sendatu eta mendekua prestatzea beste burutaziorik ez dute.

Horrela igarotzen dira goizeko lehen orduak zabortegi nagusian. Baliozko gauzen aurkikuntzak zorion oihuz agurtzen dira, eta karretilak toperaino bete ondoren merkatura eramaten dituzte erreskatatutako altxorrak. Merkatuan, emakumeek prest dituzte postuak.

Merkatua amaitu ondoren emazteak dira zabortegian bigarren batida ematen dutenak. Beste begiz so egiten dituzte zaborrak. Zaramaren artean jakiak bereizten abilak dira, eta beti itzultzen dira, letxuga hosto, bestelako barazki edo dataz igarotako kontserba potoz horniturik.

Bazkalondoren, haurrak hurbiltzen dira zakarretara. Jostailu apurtu guztiak errebisatu eta analizatu eta gero, ezkutaketan egiten dute jolas ordu luzetan, eguzkia jeisten den arte, egurats kutsatua ama urdurien lanturuz betetzen den arte...

–Zatozte! Zatozte!!

Oihuak gero eta premiatsuagoak dira, gomendiotik mehatxura igarotzen dira errukia alde batetara utziz, eta azkenean, amaren batek, guztiek espero duten abisua botatzen du:

–Haurrak zatozte! Bestela Zambo Eroak harrapatuko zaituzte eta!

Eta zabortegia mortu geratzen da, hilerri bat balitz bezala. Gauak biztanleak oro laztantzen dituela dioteneko orduan. Arratoien karrera higuingarriak eta zakur erien kantu bihotzberak soilik entzun daitezke, noizik eta behin.

Atzo goizean Maria ttikiak aurkikuntza ustekabekoa egin zuen zabortegian. Anibal ari zen begiak hertsirik dituenarena eginez zenbatzearen parodia burutuz. Maria ttikia bere ahizpengandik

banandu zen ezkutaleku sekreturantz abiatzeko. Ezkutaleku sekretua zabortegiaren bazter batetan zegoen, sortalderantz, aspaldian ez ziren haraino iristen kamioi berdeak. Mariak ongi zekien Anibalek tranpak egiten zituela, eta bere ahizpen bila joanen zela aurrenik, zehazkiago, bere ahizpa nagusiarengana; eta hura aurkitu eta ostera zutabera itzuli aurretik dezente denbora igaroko zela. Anibal bizkorra zen, horregatik beste guztiak paralekuan zai egoteaz asperturik oihuka hasten zirenean libre uzten zuen Mariaren ahizpa nagusia, bera baino lehen irits zedin. Anibal zen zenbatzen ez zekien bakarra, baina Anibal zen txaboladiko mutilik azkarrena; eta Mariaren ahizpa nagusiak ongi preziatzen zuen gauza zen hori.

Mariak isilpeko gordelekuan gozoki kutxa bat zeukan. Kotxe eserleku mueilegabetu batetan esertzen zen, eta kantuan egiten zuen ahots fin batez. Artista izan nahi zuen Maria ttikiak, eta hiriko gizon gorbatadunek leitzen zituzten paperetan atera; horietako gizon batekin ezkontzearekin ere amesten zuen Mariak.

Paperetan ez ezik, telebistan ere agertu zen hurrengo egunean neskatoa. Adierazpen zehatzez jakinarazi zion telebistako aurkezle aratz horri nola beti bere gordeleku sekretura joaten zen karameloak jatera Anibalek asko tardatzen zuelako kontatzen, eta gainera bere karameloak beste inori eman nahi ez zizkiolako. Eta orduan eserita zegoela bere eserlekuan, burua atzera bota zuela eta zerbaitek ilean karizia egiten ziola nabaritu zuela. Anibal izango zela pentsatu zuen berak, noski, eta Anibal mozolo esan ziola kolpe emanez, eta orduantxe erori zitzaiola altzora beso more eta odoleztatu hura. Garraisi egin zuen Maria ttikiak eta ez zen gehiagotaz oroitzen.

Anibal lasterka iritsi zen hara, horrela esan zuen, berak ere kamara aurrean. Konorte gabe topatu zuen Maria ttikia eta izutu egin zen. Ez zuen kontatu urdailak zintzurrera igo zitzaizkiola eta gonbitolarria ezin izan zuela eutsi. Maria ttikiaren ahizpak iritsi baino lehen bildu zuen besoa inguruan zegoen plastiko baten barnean, eta kargamentu makabroa eta Maria kordegabetua zeramatela joan zirela txaboladira.

Zabortegia argi urdin eta laranjez bete zen arratsean, arratoi eta saguek ihes egin zuten eguratsa sirena hotsez bete zenean. Linterna argitan itzalek beldur hartzen zuten.

Arratsero bezala atera zen Jose indioa bere txabolatik. Hegoalderantz abiatu zen betiko lez. Zakurren zaunkek agurtu zuten bere bidea; agureek betiko txantxa egin zioten, eta Josek barre egin zuen bere barnerako, ezkerreko eskuan zeraman plastiko beltzezko poltsari balantza bortitzagoak eraginez. Ezpainetan itsatsirik zeraman zigarreta itzalia eta uda horretan Lima osoak marmarkatzen zuen kantua ahoan.

Komadre taldeak ikusi zituen Josek bere bidean, keinu haunditsuz mintzo ziren kalera atereak zituzten telebista aparailuen aurrean, lokutorearen hitzaldia itzaliz oihuekin. Josek, esku libreaz bere adats iluna atondu zuen. Euli hodeia zeraman bere atzetik, eta bero egiten zuen, gauak inor laztandu nahi izango ez balu bezala.

Ez zen beste ezertaz mintzo txaboladi guztia, baina inork ez zion deus esan Joseri. Josek gaua

kanpoan igarotzen zuen, eta etxeratutakoan bere jergoian etzaten zen lotara, beroak bere lokarri estua lasatzean esnatu, afaria apailatu eta abiatzen zen berriz. Hegoaldeko bidea hartzen zuen, hirira iristeko biderik motzena hura zen eta. Ongi ezagutzen zuen bidea, ilargirik gabeko gauetan ere ez zen sekula tronpatu, ez zuen estropuz egiten.

Puntu konkretu batetan bere poltsako kargamentua hustutzen zuen eta aurrena jarraitzen zuen hiriko neoizko gauean galduz. Zabortegiaren mugara iritsi bezain pronto linterna baten argiak itsutu zuen.

–Altxa besoak! Polizia!!

Jose choloak poltsa erortzen utzi eta korrikari ekin zion. Poltsatik emakume baten burua atera zen linternaren argitan irribarre makabroa eginez. Zankadila jarri zion inspektoreetariko batek, beste batek eskumuturrekoak estutu zizkion.

–Urde zikina! Putakumea!! –garraisi egin zion hirugarren batek.

Eta bijilantzia taldea osatzen zuten bost polizien artean egurtu zuten Jose. Kolpe batek bere

sudur txapala hautsi zion. Beste batek bost hortz saltarazi. Barrabilak birrindu zizkion beste batek. Saihetsezurrak hautsi zitzaizkion kolpeen pean. Eta gorputza ubelduraz josia zuela iritsi zen komisaldegira.

Komisaldegiko atean mutxedunbrea esperoan zeukan. Bertan akatu nahi zutenak baziren, baina batez ere jurnalisten flashak ziren nabarmen. Kamaragizonek eskilaretara igonik Limako deskuartizatzailearen irudi lanbrotsuak lortu zituzten, baina ez ziren azkenorduko berri sailetan agertu, zentsura baimenik lortu ez zutelako, hain zen tamalgarria hiltzailearen egoera orokorra.

Komisaldegian beste guztiengandik aparte jarri zuten, poliziak ez ziren fio beste detenituen erreakzioez eta. Inspektore nagusiaren despatxuko tuberietara kateatuta eduki zuten gau osoan. Goizaldean hasi zen inbestigazio brigadillako kideen txandakatze amaigabea. Hiru egun luzez eman zizkien eskatzen zizkioten datuak eta beste eskatugabeko zenbait ere, Josek. Gizonaren odolotzak izutu egin zituen inspektorerik bipilenak. Detailerik txikienari ere erantzuten zion Josek. Banan-bana deskribatu zituen bere

zortzi biktimak, non akatu zituen, nora eraman zituen, non txikitu zituen eta hiriko zein puntutan barreiatu zituen, edo barreiatu asmo zituen, haien soinadar, enbor eta buruak. Kolektorean aurkitu zituzten gehienak.

Laugarren egunarekin Limako eta Sorbonako unibertsitateetako diplomak erakusten zituen psikiatra eramanarazi zuten komisaldegira. Europan ibilia zen doktore hori, eta bere ikerketa lanetan hiltzaileen jokabide patologikoek atal zabala hartzen zuten. Erregu askoren ondoren eman zuen komisario buruak Limako deskuartizatzailea bisita zezan baimena.

Detenitua aulki batetara loturik zegoen. Psikiatrak irribarre egin zion sartzerakoan. Kanpoan polizia izerdituek plastikozko edalontzitan kafea edaten zuten etengabe. Bizarra egin gabe zeramaten gehienek. Interrogatorioek guztien aurpegietan marka nabarmenak utzi zituzten. Begiak gorriturik zeuzkaten. Bata bestearen atzetik erretzen zituzten zigarreta enbokilatuak. Eta ageri zen beren lanaz fier zirela, psikiatraren presentziak nolabaiteko prestijioa ematen ziola susmatzen zutelarik.

Orduerdia ez zen igaro despatxuko atea ireki zenean. Ateko markoan psikiatra agertu zen, gorbata korapiloa deseginik, kamisa zuriko mankak ukondo gainean bildurik, izerdi patsetan. Eta honela esan zuen:

–Monstruo batetaz libratu dut mundua...

Poliziak arrapaladan sartu ziren despatxoan eta Jose choloaren hilotza topatu zuten aulkira loturik. Beren atzean psikiatraren ahotsak eman zuen guztien buruan zebilen galderaren erantzuna:

–Ezin izan dut jasan. Nola hil zituen kontatzen hasi zaidanean, hoztasun horrekin, ezin izan dut jasan. Akabatu beharra neukan. Mundua libratu beharra neukan horrelako monstruo batetaz–, eta bere eskuak luzatzen zizkien poliziei, choloaren lepoa estutzerakoan egin zuen jestoa errepikatuz...

Kanpoan eguzki kupidagabeak asfaltoa biguintzen zuen. Itzalak berak ere kexu ziren.

Zurrumurrua oinetan

Gara-Kondu martxoaren lehen egunetan iritsi zen hirira. Kale edo komun publikoen garbitzaile izatea apailatua zion asturuak. Kamionero batek ekarri zuen hiri-erdiraino. Hotz egiten zuen. Hotz egiten zuen larruzko beroki sendoak zeramatzaten hiritarren aurpegietan. Eta hotz egiten zuen Gara-Kondu-ren azalean. Manka motxeko tee-shirt horaila estaltzearren soinean zeraman beroki higatuaren lepokoak altxatu zituen.

Kalea zabala zen, hiribidea; espaloietan kimuberritzen hasiak ziren zumar gaisotuak altxatzen ziren itzalik emateke, eguzkirik ere ez zelako ageri. Moldegabeko hodei amaigabeak soilik etxebizitzen arteko espazioan. Zurezko banku berde batetan eseri eta orduerdia igaro baino lehen txanponek asfaltoan egiten duten soinua aditu zuen bere bidaia boltsa txinoaren alboan. Segituan euria hasi zuen, eta Gara-Kondu, biztanleei segika lurrazpian sartu zen.

Metropolitanoaren abantailen artean giro epela eta etzateko aukera nabarmendu zituen

Gara-Konduk. Hantxe eman zuen ia egun osoa, etengabe igarotzen ziren trenei so eginez. Tren horietatik jeisten ziren, tren horiek okaztatzen zituzten jendeei, so eginez. Bere alboan eseri ziren batzuk ardo botila luzatu zioten edan zezan. Eta trago batzuren buruan seko lo geratu zen Gara-Kondu, hantxe bertan.

–Aizak hi, beltxa –aditu zuen, zenbat denbora igaro ote zen ezin jakinik. Sorbalda astintzen zionak hitzak mastekatuz pasa zion abisua: –Goazemak hemendik, txakurrak hemen dituk laster.

Haiekin atera zen. Kanpoan gaua zen jadanik. Beste guztiek alde egin zuten, binaka edo banaka, berak ezin jakin nora. Eta Gara-Kondu goizaldean eseri zeneko banku berde berberera itzuli zen. Gaua zen, eta berak ez zuen logurerik.

Egunaren lehen orduak iritsi ziren. Ortzeak, aldaketa gordinetan kolore krudelenak txandakatzen zituen xuhurki, eguna nolakoa izango zen asmatzera utzi gabe. Laino estrainoen andana bati, lehen eguzki printzez bustitako zeru zabala ordezkatzen zitzaion. Txoriak, bapatean, kan-

tuan hasi ziren leihoetako kaioletan, eta hiribideko zumarren adarretan.

Atari bat zabaldu zen. Emakume ttipi baina gihartsu batek baldekada bat ur xaboitsu bota zuen espaloira. Zipristinak, Gara-Konduren deportibo noizpait zuri izandakoetaraino iritsi ziren. Emakumeak, ostera atea itxi aurretik, tinko so egin zion, bankuan hotzez kizkurturik zegoen beltzari. Hiriko biztanleak, batzu besteen atzetik, kaleratzen hasi ziren.

Hotz egiten zuen. Okindegi bat zabaldu zuten handik ez urrun. Haraino inguratu zen Gara-Kondu. Bertana sartu, sakelean gordeak zituen karidadezko txanponak atera eta mostradorean barreiatu zituen, hatz dardarti eta luzeska batez labetik atera berri ziren ogien saskia seinalatu zuen. Neskatilak, salneurriari zegozkion txanponak jaso eta ogia luzatu zion Gara-Konduri inolako irribarrerik gabe. Ogia bero zegoen. Okindegi barnea ere epel zegoen. Neskatilak zapia pasa zuen mostradoretik.

Berriro kale gorrian, eta bere bankurantzako bidean zakarrontzi batetatik aldizkari bat erreskatatu zuen. Ogia miliskatuz eta aldizkariaren

orrialdeak igaroz aritu zen denbora puska batez. Geroxeago, berdez jantzitako kalegarbitzaileak agertu ziren. Eta, Gara-Kondu, haien lana ez eragoztearren, edo errespetuz, jeiki eta aurreko egunean bezala metropolitanoan sartu zen.

Arratsarekin etxeratzen hasi ziren auzuneko biztanleak. Gutxi ohartu zen goizaldean banku batetan eserita zegoen beltza banku horretan bertan zegoela. Baina ohartu zirenei ez zitzaien batere atsegin izan. Bere aurrean zeuzkan etxebizitzetan begirada galdurik, haizearen enbata hotza tenperaturaz aldatzen ari zen Gara-Konduren burmuinetako ametsetan. Oihalen azpitik muturra ateratzen zuen nerabea zekusan. Giharre luzetako besoez estaltzen zuen bisaia hondarra begitaratu ez zekion. Atzetik agureetariko bat mintzatu zitzaion:

–Hoa hi ere hala nahi baduk.

Eta oihala erortzen utzi zuen. Oihalezko etxola barruan zurezko tutuetan putz eginez arrapostua egiten zioten agureek ekaitzari; beste guztiek txalo erritmikoz laguntzen zuten, eta emakumeek oihu ttipiz. Gara-Kondu zoko batetan geratu zen mututurik. Eta ametsa, hirian, betazale-

taraino hedatu zitzaion. Aldizkariaren orrialdeak berokiaren barnetik sartu eta bankuan etzanik loak hartu zuen.

Zurrumurruak esnatzen zuen goizero lorik gabeko bere lokartze hartatik. Emakume ttipia eskaratzera agertu aurretik alde egiten zuen. Bazen kaleska bat harantzago, zakar poltsen atzean egiten zuen pisa, eta ilunpean zutik itxaroten zuen. Aldian behin, katu bat bertaratzen zitzaion bizkarra bere bernaren kontra igurtziz. Gero, batzutan bankura itzultzen zen, edota lurrazpian sartzen. Eseririk, edonon, begiak hersten zituen. Zerbait marmarkatzen zuen. Hasperen egin, eta begiak zabaltzen zituen ostera. Hotzak zegoen hirira iritsi zenez geroztik. Hotzak zegoen aspaldidanik. Zaharturik sentitzen zuen bere gorputza.

–Dokumentazio paperak –eskatu zizkion ahots agintari batek.

Zelularrean sartu zuten. Komisarian fitxa bat egin zioten. Izenik gabeko fitxa bat, inongo fitxerotan klasifika ezin zitekeena. Ordu batzu berantago konortea galdu zuen Gara-Konduk. Ohez

eta gaisoz gainezka zegoen ospitale txino batetako korridorean esnatu zen. Jeiki, eta kalean zen berriro. Hirian, bakarrik.

Ibai bat ikusi zuen. Kale estu eta hiribide zabalak. Zuhaitzez beteriko parkeak, eta adokinik gabeko bideak. Eguzkiari jarraiki zitzaion beste behin. Banku askotan etzan zen. Karidadea jaso zuen batere eskertu gabe, hiritarren ohitura galdaezina bailitzan. Eta bere bankura iritsi zen egun batez.

Goizaldean emakume ttipiak esnatu zuen zakarki:

–Aide! Alde egin ezak hemendik edo poliziari dei egingo diot.

Alde egin zuen kaleskara eta orpoen gainean eseri zen. Bere aurrean agureetan buruzagia zegoen:

–Noiz hoa?

–Bai banoa...

–Ekaitza baino lehen partituko haiz?

–Bai, ekaitza baino lehen.

Oihalezko etxola barruan euliak burrundaka zebiltzan. Gara-Konduren sudurretan, eta agurearen begi ertzetan pausatzen ziren. Agureak aiztoa atera zuen zorrotik. Gara-Konduk besoa luzatu zion. Bion erdian buztinezko katilu bat zegoen. Katilura isuritako odola edan zuen agureak, eta kondarretan hatza sartuz zirkulu bat egin zuen Gara-Konduren bekokian.

–Ekaitzaren izpirituak gida zaitzala –esan zuen agureak.

–Zurrumurruak ase dezala nire sabela –erantzun zion Gara-Kondu-k.

Eta abiatu zen, kaleska hartaraino iristeko. Ez zen eguzkirik. Oihuak entzun ziren leiho ttipi batetik. Karraixi ozenagoek erantzun zioten. Zerbait jausi zen nonbait. Negarrez hasi zen norbait. Katu bat agertu zen ate baten atzetik. Gara-Kondu jeiki eta bankura itzuli zen. Gortina baten atzetik begi pare batek Gara-Kondu espiatzen zuen.

Kotxe bat gelditu zen kalearen bestaldean. Lau gazte jeitsi ziren. Gara-Konduk aldizkari bat be-

giztatzen ziharduen. Inguruan jarri zitzaizkion lau gazteak:

–Aizak kabroia! –esan zion lehenak– itzul hadi hire etxera.

–Entzuten al duk, edo belarriak garbitu behar al dizkiagu, zerri halakoa –gaineratu zuen bigarrenak.

–Ez baduk alde egiten, izango duk gure berri –amaitu zuen hirugarrenak.

Laugarrenak ez zuen deus esan. Keinu bat egin eta kalea gurutzatuz kotxera itzuli ziren laurak. Bortxaz arrankatu eta zaratatsu alde egin zuen kotxeak, kalea bare, mortu utziz.

Gara-Kondu-k alde egin zuen, eta egun osoa kaleetan zehar ibiliz eman zuen. Ortzea beti berunezkoa zen. Kalea grisa. Basamortuan, handik urrun, ekaitzak ekialdetik jotzen zuen. Etxola barnetan agureek tutuetan puzka ari ziren zurrumurru sarkor bat sortuz. Gazteek zirkulu itxi batetan txalo erritmikoz laguntzen zuten zurrumurrua. Eta emakumeek, noizik eta behin, oihu ttipiak, oihu zorrotzak botatzen zituzten. Harea zurrunbilotan altxatzen zen zeru urdina estaliz. Agian, gazte batek kanpokoa espiatzen zuen

oihala altxatuz. Eta urte batzu berantago, herritik alde eginen zuen gazte horrek, gose zelako sabelean zeraman zurrumurrua.

Hurrengo goizean Gara-Kondu egon ohi zeneko bankuaren inguruan pintura gorriz egindako zirkulu bat agertu zen. Gara-Kondu bankuaren izkina batetan eseri zen aiduru. Zurrumurrua bere oinen azpitik igarotzen zen. Begiak isteagatik ere hotza sentitzen zuen Gara-Konduk betazalen atzean. Kotxeak tarte handiz igarotzen ziren, jendea berantago atera zen etxeetatik. Ateratzen zirenak ez zebiltzan presaz.

Haur batzu agertu ziren korrika. Gara-Konduk harriduraz begiratu zituen. Auzoan zegoen zinemara sartu ziren, eta kalea berriro isildu zen. Geroxeago gazte bat pasa zen bankuaren aurretik, liburu bat besapean, zigarro bat erretzen. Katuei jana ematen zien atsoa seiak girian pasa zen Gara-Kondu-ren albotik. Laster ilundu zuen.

Kotxe baten faroek hautsi zuten gauaren itzala, euriak bustitako asfaltoan islada garratzak sortuz. Lehen martxa sartuta zetorren. Mu-

sikaren zarata aditu zitekeen kanpotik; gazte batzuren algara eta barreak. Espaloira igota gerarazi zuen txoferrak. Lau ateak zabaldu ziren. Musikak kalea bete zuen. Gara-Kondu geldo zutitu zen. Zirkulu erdia eginez kokatu ziren lau gazteak, beltza irainduz.

Emakume ttipi eta gihartsua agertu ohi zeneko atarirantz bultzatzen zuen Gara-Kondu zirkulu gero eta itxiagoak. Atariko kristalak kolpatu zituen laguntza eske. Garraisi egin zuen. Bere xilioa kotxetik sortzen zen musikaren gainetik aditu zen. Gazteetariko bat aurreratu eta lehen aiztokada sartu zion saihetsean. Gero beste hirurak inguratu zitzaizkion. Burnizko ukabilkadez hautsi zioten matrail-hezurra. Porra txiki bat erori zen indar osoz bere ezkerreko lokira. Garraisiak isildu ziren. Aurreko etxebizitzan norbaitek leiho bat ireki eta pakea eskatu zuen.

Gazteek hanketatik heldu zuten Gara-Kondu eta bere banku berdearen azpiraino eraman zuten arrastaka. Kotxera sartu ziren korrika, ateak itxi aurretik martxan jarri zen. Eta alde egin zuten, handik. Igande arratsaldeetako baretasun zamatsua nagusitu zen azkenik kalean.

Astelehenean, 110 biseko eskaratza garbitu ohi zuen emakumeak ur-xaboitsuzko baldekada bota zuen kalera. Ur-xaboitsua Gara-Kondu zenaren odol sikuarekin nahasten saiatu zen. Emakumea apur bat harritu egin zen beltza banku azpian lo ikusteaz. Haserre hurbiltzen hasi zitzaion, eta orduantxe ohartu zen hilik zegokeela. Garraisika hasi zen polizia deika, zurbil. Auzokoak atera ziren leihoetara, kalera, bankuaren inguruan kuxkuxeroek zirkulu bat egin zuten. Haien azpitik, egunero, hamar minuturo bezala, metroa igaro zen, burrundara sorgortu batez hiribidea lurrazpitik igaroz. Eguzkiak, egun horretan ere, esfortzu ttipiegiak egin zituen hodei grisen murrua gainditzeko.

Komix

(edo Catty, Joddy, Slide,
Bucks eta William G. izenekoa
hanburgeserian elkartu ziren)

Autobidea eskubitarantz utzi eta komertzialgune bat dago, hirirainoko bidean dauden beste hainbat bezalakoxea, berrogeitamar, ehun kilometrotan behin. Supermerkatua, gasolinategia, bungalow batzu eta hanburgeseria. Depresioaldi batek jo eta bertan bizitzera, edo irautera, geratzeko aukera ematen dute. Whiskya erosi daiteke supermerkatuan, hanburgesak eta patata frijituak jan hanburgeserian, alde egin nahi izanez gero ez dago gasolinarik gabe geratzeko arriskurik, eta ohe latz bana dute bungalow-ek. Ohean etzan, telebista piztu eta urrutirako gailuarekin kateak aldatu. Dollarrak xahutu artean. Zirrosiak gibela birrindu bitartean. Edota almohada azpiko smith & wenson-ak bungalow-eko horma nardagarriki papereztatuak norberaren garunez apainduko dituen unearen zain.

Supermerkatuan neskatxa ile-blonda bat egon ohi da, irrifartsu, uniforme azpian bularrak preso dauzkala, txiklea mastekatuz. Desertuko asperrak kirioak jan izan balizkio bezala mugitzen da, hasperen luzeen artean, kateme geldo bat bezala, laka larregiz zamatutako ile adatsak binbili-banbalaka.

Diru-kutxa enfokatuz video-kamara bat. Eta neskatxa ile-horaila bazkaloste berunetan apur bat artista sentitzen da. Lapurretaren bat gertatuz gero video-banda ikuskatuko lukeen polizia-gizon segaila irudikatzen du gela ilun eta lanbro batetan, sonbreroa apur bat atzekalderatua, lepokalde eta eskumuturretan izerdiak eta zikinkeriak beztutako kamisa txuritan, galtzarbeko kartutxera agerian, zigarro txustar mendiska hautsontzia betez, alboan.

Polizia-gizonak, Slide-k, behin eta berriro ikuskatzen du video-banda. Ez, ongi kaputxaturik, eta beraz identifika ezin den ohoinaren imintziotan giza-etsai ezagunen bat susmatu asmoz; baizik eta Catty-ren –Catty bait da neskatxa ile-blondaren izena, alboan utzi duen informean irakur daitekeenez– keinu eta mugimenduak begiz

urrupatuz. Catty-ren gorputza mirestuz, esku bat, ezkerrekoa (eskubikoak piztu berri duen zigarroa sostengatzen du), galtza barnera darama, zakil sendo eta izerditsua sentitzeko. Ferekatzen du, astintzen du. Masturbatzen da, lapurrak Catty mostradore gainean etzanarazi eta bortxatu duen bitartean.

Catty-k, horrelakorik gertatuko balitz, gero norbaitek ikusiko lukeela jakingo lukeela pentsatu du. Ikusiko lukeela nola bortxatzen duten. Catty-k, keinu zehazkaitza egin eta pentsamendua kanporatu du, txikle zaporegabetua ahotik bezala, burutik.

Hanburgeserian Joddy dago, mutiko beltzaran eta flakoa. Joddy potroetaraino eginda dago benetan. Goizeko seietan hasten da lanean. Berak hartzen du lehen kafea. Gero erreskadan jartzen ditu tomatea, gazta-xaflak, letxuga, arraultze egosiak, mostaza, ketchup-a. Alde batetara jadanik erditik zabaldurik iristen diren ogi borobilak; eta bestera haragi-xehetuzko hanburgesak, bata bestearen gainean, hogeinaka. Plan-

txa piztu du, olioa berotzen jarri, eta hozkailutik frijitzeko prest dauden patata poltsak aterako ditu. Jadanik atean ditu kamioizaleak protestaka, ordua delaka. Eskuak mantalean igurtzi eta marmarka zabaltzen die. Haragia erretzen du plantxan, patatak frijitzen oliotan, hanburgesak prestatzen ditu eta garagardoa zerbitzatzen die. Musika-makina martxan dago modaz pasatutako baladak isuriz.

Bucks zaharrak betetzen ditu komertzialgunean suertatzen diren ibilgailu guztien depositoak. Bucks zaharrak begi ttipiak ditu, ttipituak, aurpegia tolesten dioten ximurretan hondoratuak. Kokotzean ateratzen zaizkion hiru ileak alanbretsuak dira aspaldion. Eskuetan gasolina usain sarkorra itsatsi zaio betirako, baina bera ez da ohartzen. Behin eta berriz igarotzen du eskugaina sudurretik etengabe irristatzen zaion muki urtsua xukatzeko. Bucks zaharra asko ikusia dago mundu honetan, hau da, desertuaren erdian galdurik dagoen gasolinategi horretan. Hantxe zegoen bera supermerkatua eraiki aurretik,

eta hanburgeseria eraiki aurretik ere. Berak ikusi zuen nola suntsitzen zuten buldozerrek hotel zaharra, eta nola ekarri zituzten kamioietan bungalow aurre-fabrikatuak. Eta zuhaitz aldaskak balira bezala prantatu zituzten, hantxe, orain dauden leku horretantxe. Makina bat aldiz ikusi ditu makinak galtzada berriztatzeko galipota garraiatzen; eta frangotan ikusi du galtzada berria zulatzen.

Ostiral gauetan komertzialgunera hurbildu ohi diren hiruzpalau putak ere ongi ezagutzen ditu. Bistaz besterik ez bada ere. Baina hauen aurretik etorri zirenak berdin ezagutu zituen; eta lehenago etorritakoak. Bera ezagutu zutenak ere ezagutu zituen, nola ez. Eta, hori bai, oraingoak ez dira lehenagokoak bezain onak. Hori ziur. Edo, agian, oraingo gizonak dira lehenagokoak bezain onak ez direnak. Dena dela, berari bost axola. Petroleoaren salneurria gorantz doa. Eta kotxe eta kamioiek, gauza jakina da, petroleoa behar dute mugitzeko. Ez hori bakarrik, baina bai hori gutxienez.

Larunbatetan mundua biltzen da komertzialgunera. Famelia osoak, bikoteak, gazteak. Supermerkatua bete egiten da. Eta hanburgeseria leporaino egiten da. Catty umore txarrez egoten da; Joddy lehertzeko zorian; eta Bucks izerdi patsetan.

Bungalow batetan Slide dago, polizia, brigada berezikoa, bart gauean lorik egiteke, topatu lehen parajean gelditu eta deskantsatzea erabaki du gaur goizean. Supermerkatuan whisky botila bat erosi du. Arranopola, pentsatu bide du, Catty-ri dirua luzatzerakoan. Eta irribarre amoltsu bat eskeini dio Catty-k txiklea mastekatzeari utzi gabe. Gerorako plan zehatzgabeak biribilkatu dira poliziaren buruan. Hanburgeserian hanburgesa bi eskatu du. Bata erreegia, eta bestea gordinegia zerbitzatu dizkio txikano putakumeak, pentsatu bide du Slide-k. Eta Joddy-k, madero usaina dario bere ama galduaren seme deskarriatu zakil makal honi. Gasolinategiko zaharrari kotxea begiratzeko agindu dio, presarik gabe. Bucks zaharrak kotxea begiratu du, begirada patxaratsua izan da, eta, gero begiratuko dugu, pentsatu du. Slide ohean etzan da eta

erromatarrez ari den filme bat jarri du telebistan, hotsik gabe.

Botilaren erdikaldean, etengabeko kotxe burrundak pittinik eragozten ez diolarik, lokartu da, Slide, korbata guztiz kendu gabe, pistola mesanotxean utzita.

William G.k Viet-Nam-ekoa egin zuen. Ez du batere maite horretaz mintzatzea. Ez behintzat edangabe dagoenean. Edaten duenetan berriz horiak dakusatza alde guztietatik. Emaztea lehengusu batzuren etxera joan zaio asteburua igarotzera. Eta bakarrik geratu da. Pozik hastapenean, besaulki malguan jezarri da, lurrean, ez oso urrun garagardo botila kaxa duelarik, eta magalean sandwich oparo bat. Telebistan, halabaina, bere taldekoak galtzen ari dira match-a. Galtzen ari dira, irabazteko batere esperantzarik gabe gainera. Txarto jokatzen ari dira, sekula baino txartoago. Haserratu da William G. biraoka hasiz, banan-bana iraindu ditu jokalariak. Garagardo botila hustua bota du telebista pantailaren kontra.

Armairu batetan kainoi errekortatuzko remington bat dauka William G.k. Garbitzeko asmoz atera du, olioa eskuzabalki barreiatu du burnian, zapi batez distira ateratzeko ondoren. Kaxoi batetan balen kutxa dago. Postaz kargatu du eskupeta. Logelara abiatu da, eta ohe alboko mahaitxoko kaxoietik errebolberra erreskatatu du. Ez du inork ikusi sarjentu-ohia etxetik ateratzen ez kotxeko atzeko partean remingtona sartzen. Kotxea burrundaraz partitu da, auzuneko bizpahiruren bazkalosteko loalditxoa izorratuz.

Slide-k sekulako kaskazurreko mina zeukan esnatu denean. Biharamona iritsi aurreko biharamona. Irudirik gabeko telebista amata eta jaka eta sonbrerua jantzirik atera da bungalow-etik. Une horretantxe ari da Catty supermerkatuko ate nagusia isten. Catty ere, Slide bezala, hanburgeseriara doa. Bera Joddyren bila, bere mutilaguna bait da; datorren urtean ezkontzeko asmotan dabiltza, edo lehenago diskuratuz gero. Polizia, atxurra gainditzen laguntzeko dosi berri baten bila doa, garagardo batzuren edatera.

Bucks zaharrak berriz, oraintxe eskegi du gasolinategia hertsirik dagoela adierazten duen karteltxoa. Eta ongi merezi duela erizten duen cognac bat edan nahi du hanburgeserian.

Arratsa gauarekin nahaspilatu da ortzean bezala desertuko paraje galdu horretan. Haizeak hondar aletxoak garraiatzen ditu nekoso, landareren bat ere bai. Zakur batek igarotzen du farolen eta neoi argien pean agertzen den esplanada. Hiru giza-irudi abiatzen dira itzalak arrastaka.

Hirurak, bata bestearen atzetik, baina ez elkarrekin, sartu dira kanpoko freskotik barneko giro kutsatura. Hanburgeserian Joddy-z gain, beste hogeiren bat bezero dago. Hiru mozkor, bikote pare bat, famelia jendetsu bat, bost kamioizale, bi puta eta William G. izena duen gizon bat.

Mozkorretako bat kantari ari zaio Joddy-ri belarrira ardo botila berri bat eman diezaion konbentzitu nahian. William G.k begirada tinkoz so egiten du jendeaganantza, baina inori bereziki begiratu gabe. Puta biak kamioizaleekin ari dira

algara eta olgetan. Haurrek ez dute hanburgesarik jan nahi; haurren ama sekulako burukominez dago; aitak begizulo sakonak ditu, eta etsituki parte hartzen du amaren errietan. Bikoteak muxu eta xirrietan ari dira; edo agian haserraturik daude.

Catty, arin, ipurdi mugimendu maltzurrez hurbildu zaio Joddy-ri. Slide-ren begirada ez da sobera aldentzen gonen azpian ere mamitsu antzematen den Catty-ren ipurditik. Polizia William G. izena duen gizonaren mahaitik ez oso urruti eseri da. Bucks zaharra barran pausaturik mutilari mintzo zaio:

–Utzi kontuak gerorako. Betikoa, Joddy!

Azkar gertatu da guztia. William G. madarikatuz jeiki da, inork nondik atera duen ez dakien remington kainoi errekortatuzkoa eskuan. Slide ere instintiboki jeiki da, polizia bait da, mundu guztia isildu denarekin batera, bere polizia-plaka erakutsi dio eskupeta eskuan duela jeiki den gizonari. Gizonak, horiek ez dutela irabaziko oihu egin du eta lehen postakada Slideren sabelaldera zuzendu da. Bucks zaharrak oraino horrelakorik ez zuela ikusi pentsatu du bigarren tiroa be-

reganantz abiatu baino segundu laurden bat lehenago. Joddy-k Catty-ri zemaion musua izozturik geratu da polbora usainez kutsatu aurretik. Kamioizaleak garraisika hasi dira, putak lurrera etzan dira. Haurrek filme bat zela pentsatu bide dute hasieran. Amari burukomina errotik kendu zaio. Aitak ez du helbururarte falta zitzaizkien miliekin gehiago pentsatu, errebolberra eskuan berari begira zegoen gizona ikusi duenean. Detonazioen erritmora hautsi dira bikoteak. Eta erreganbarako azken bala bere ahorako gorde du William G.k.

Azkar gertatu da guztia. Geroxeago mutil bat altxa da besoa odoletan, negarrez, dardarka. Musika-makinan ari den country-a soilik entzuten da min-oihuen gainetik. Sukaldean frijituraren zarata. Telefonoa hartu du mutilak eta poliziari hots egin dio. Hogei minuturen buruan hasi da komertzialgunea polizia kotxe, su-hiltzaile eta anbulantzien argi koloretsuez betetzen, gaua estrainoki tindatuz. Kazetariek beren lehen hipotesiak idatzi dituzte kaiera ttipietan. Polizia lerro batek eragotzi die argazkilariei beren lana.

Hamalau heriotzena

MARTIN ITZEBERRIKOAREN ALARGUNTSA

Ilundu zuen eta senarra kortatik itzultzerako prantatu nuen mahaia alabaren laguntzaz. Haize erauntsiak arbolak okertu eta leihoak dardarazten zituen. Ez genuen inor espero halako gau batetan, baina ohitura dugu bidaztiei aterpe ematekoa; ez da sekulan falta izan gure etxean salda beroa eta non etzana, eskertzekoa izaten bait da neguko gau luzeetan batetik bestera ibiltzen direnek ekartzen dituzten kontuak aditzea. Txanponen bat borondatean ematen badute ere ez dugu ukatzen. Jo zuen ba norbaitek atean halako batetan. Eta senarrak zabaldu zuen. Euritan blai egonagatik ere itxura sendoko gazte bat agertu zen gauerako aterbe eske. Alabak jaso zituen haren kapusai eta erropa bustiak eta behekosuaren parean sikatzen jarri. Martinen espartin zahar batzu ere utzi genizkion, eta goseak egotekotan gu puntuan afaltzen hastekotan geundela, eta mahaian bazegoela lekua eser zedin gurekin indiaba platerkada bat jatera, hala nahi ba-

zuen, gonbidatu genuen iritsi berria. Ez zuen ezetzik esan eta Martinek mahaia bedeinkatu orduko hasi ginen afaritan. Ohi baino beranduago oheratu ginen, gazteak hizpiderako joera zuen eta. Alaba eta biok hala ere, gizonak sukaldean utzita joan ginen koartora. Ez nuen nik halakorik espero.

Milla zortzireun eta ogeitabostian
au amairugarrena Urriko illian
Martin Itzeberriko Altzibarrenian
atiak jo nituen ongi illunian
baita ireki ere borondate onian.

BI GIZON OHEAN

Bapo afaldu ondoren sukaldean zeuden bi gizonak. Etxeko nagusiak botila bat ardo atera zuen mahai gainera, eta gaztea artobixarrezko zigarro bat biltzen ikusterakoan keinu batez geldiarazi zuen haren fabrika. Armairura hurbildu eta poto bat atera zuen bertatik gazteari luzatuz:

–Esango didak gero zernolakoa den... Ameriketatik diretamente ekarria!

–Eskerrik asko nagusi, aspaldian tabakoa erre gaberik naukazu... Estimatzen dizut benetan.

–Tira, tira, motell... Ardo tragoska nahi al duk?

–Zergatik ez ba?

–Zer asmo duk?

–Bihar goizean goiz abiatu nahi nuke, Katalunia aldera iritsi nahi dut eta.

–Gipuzkoan bezalako girorik ez duk inon aurkituko.

–Bai, horretan arrazoi duzu nagusi, baina pariente batzu ditut inguru haietan eta bisita egin behar diet.

Hitzaspertua suaren antzera itzaliz zihoan, eta sugarrak besterik ez zirenean nabari oheratzea erabaki zuten bi gizonek. Ama-alaba lo sakonean zeudekeen ordurako, eta ohean sartu eta elkarri gau ona opa bezain pronto kandelargia itzali zuen Martinek.

Ixtimatu ninduten konde bat bezela
sillan exeri eta apaldu nezala
konformatu ziraden familiyan ala

nagusiya ta biyak etziñen giñala...
berari sartu niyon petxutik puñala.

HERIO IHESI

Gazteak higitzeke, alboan etzanik zegoenaren arnasa zaintzen zuen. Ez zuen asko iraun Martinen loak etorri gabe; tapakien azpian beroa egin zenean etxeko nagusiaren arnasaldia patxaratsua bilakatu zen. Denbora iragaiten utzi zuen gazteak begi zabalduak ilunpeko infernuan tinko. Albokoak mugimendu bat egin zuen, eta haren besoetariko bat bere gorputzera hurbiltzen nabaritu zuen. Arnas aldaketarik ez haatik. Gazteak ohetik kanpora luzatu zuen eskua zoluan utzitako aiztoaren bila, aho hotza ukitu zuten bere hatz urduriek, euslekutik fermuki oratu eta airea ebaki zuen zirkuluerdi bat burutuz indartsu hondoratu zion alboan lo seko zegoenari bularrean. Konbultsio bat egin zuen Martinen gorputzak, eta eztarrian oihu ito bat trabaturik zuela jeiki zen ohetik. Beste ohetik hots bat aditu zen. Bapatean kandela baten argiak itzal dardaratiz bete zuen gela, alabaren bisaia hasie-

ran galdatzaile, segidan estonatu, amaieran izutua eta Katalinaren harridura mutua argituz.

Martin gelaren erdian zutik zegoen aiztoa bularraren erdian landaturik. Alaba garraisi batetan eskilaretan behera abiatu zen, eta gazteak atzetik segi zion tximistak bezala. Behekosuaren alboan egurra txikitzeko zegoen aizkora hartu zuen, eta neskatxa kanpoko atea zabaltzekotan zegoenean, danba jo zion buruaren erdian.

Oitikan saltatu zen eriyo-igesi
nigandik alakorik etzuen merezi.
Alabak zuenian aita ala ikusi
apaizaren eskaka bertatik zen asi
aizkora trixte batea niyon burua autsi.

Ogeita iru urteko neskatxa gaztia...
Etzen bada lastima ala tratatzia?
Aizkora trixte batez muñak saltzatzia
ez da milagro izain ni laixter galtzia
aisa merezi nuen bertan urkatzia.

Zerraldo erori zen neskatxa, burua erdibituta, itxura barregarri batetan geratuz. Trumoiak hautsitako isiltasuna hedatu zen baserri ilunean. Neskak erortzen utzitako kandela hartu eta eskilaretan gora abiatu zen gaztea. Paretaren zuritasuna zeukan Katalinaren aurpegiak kandelaren argitan, negar egiteko ere indarrik gabe kixkur eginda zegoen koartoko zoko batetan. Bere senarraren gorpuak bere luzetasunean gelaren erdia betetzen zuen. Haren gainetik salto egin eta hankazabalik jarri zen gaztea emakumearen aurrean. Azken uneetako larrialdia gaizki ezkutatzen zuen ahotsez galdegin zion:

–Non da dirua?! Atso arrania!!

Katalinak mutu zirauen, hitz bakar bat ere ezin ahoskatuz, eta buruarekin ezetz egin zion, ezetz errepikatzen zion. Gazteak ileetatik heldu zion, beste eskuaz eztarria estutuz, eta eskakizuna berritu zion are garrazkiago. Emakumearen mututasunaren aurrean, arrastaka eraman zuen gelaren erdiraino, bere senarra zenaren gorpuaren gainera botaz. Etsipenezko keinu bat egin

zuen emakumeak eta zoluko ohol bat seinalatu zion gazteari. Zaplasteko bat jo zion emakumeari eta ohola altxatuz, poltsa bat atera zuen bertatik. Trumoi hotsarekin nahasirik zakurren zaunkak aditu ziren gauean. Urduri begiratu zuen gazteak alde guztietara, eta poltsa eskutan hartuta arrapaladan jeitsi zituen eskilarak, atea ireki eta gau hotz eta euritsuan galtzeko.

Ikusi zitunian senarra ta alaba,
Katalina gaxuak, ai, ura negarra!
Ez bazuen jarri nai bestiak bezala
dirua non zeguan esan beriala;
ongi banekiyela dirurik etzala.

GAUAREN ERDIAN

Ez zituen ilargiak zenbatu, ez eta ibilitako legoak ere. Gauez ibiltzera ohitu zen, baina parajeak uzten zion bakoitzean egunargitan burutzen zuen bere Kataluniarako bidea. Goseak urdaila sastatzen zionetan hurbiltzen zen baserriren batetara, eta han lortzen zuen lortu beharrekoa, bai eta pagatu behar bazuen ere. Batzutan au-

sart eta bestetan zuhur, atzean utzi zituen Nafarroako garidiak, eta bai eta Aragoeko lur eremuak.

Egunak ordu gutxi zituela, lapurtua izateko txiroegi zen bidazti bat gurutzatu zuen bidean. Diosala egin eta honela itaundu zion:

–Zein da hurbilen dudan herria?

–Ez zabiltza Leridatik urrun.

Agureak, zeharkako begirada batez aztertu ondoren, zera erantsi zuen:

–Hobe luke zu bezalako gazte batek Kataluniako lurretan ez ibiltzea.

Gazteak barre egin eta limosna luzatu zion eskekoari. Honek ahoan zituen hortz eskasen artean sartu zuen txanpona eta kosk egin zuen, mesfidantzaz baino ohituraz.

Leridako hiri handia alboan utzi eta hurbilen topatu zuen herrian sartu zen. Gauak inguruak besarkatu zituenean, herritik piska bat apartean zegoen baserri batetaraino zuzendu zituen urratsak. Oihartzun bat bezala errepikatu ziren gertaerak.

Ez zioten bapatekoan zabaldu etxeko atea. Ordu berant hartan norbait ate joka aritzeaz ha-

rriturik nonbait, nordaka aritu zitzaizkion, azkenik berrogeiren bat urtetako gizon sendoa arkabuza esku batean eta kriseilua bestean atarian agertu zen arte. Hitzerdia gurutzatu aurretik sartu zion labana erraietan. Arkabuza hartu eta etxeko besteengana apuntatuz soltatu zuen kargazoia. Eta gero berriro labanaz akabatu zuen lana. Zakurrak zaunkaka ari ziren gaztea urruntzen hasi zenean. Gauak ez zuen zirkinik egin gaztea bere maindire beltzaren babesean onartzerakoan.

Santo Kristo, zurekin konfesa nadiyan
zer obra egin nuen nik Kataluniyan.
Leridan pasa eta urbilen herriyan.
Bost lagun bizi ziran beren familiyan
guziyok il nituen gabaren erdiyan.

DIRUA EMAN ETA KENTZEA BIZIA

Pagadia igaro behar zuen portu gaineko bentan deskantsatu edota gaua pasa nahi zuenak. Zuhaitz enborren gristasuna han-hemenka ageri ziren arkaitzenekin nahasten zen zalantzazko

arrats ordutan, basoa trabeskatzea arriskutsu bihurtzen zen; balizko bidaiariak edozelango erasoa espero zezakeen. Etxerako bueltan poltsa errealez loditurik zekarren bidaiariak batez ere. Astoa merkantziaz zamaturik zeramatelako berandututako merkatariak suertatzen ziren pagadia trabeskatzeko beharrean ilundu aurreko azken orduan. Gizon bipil eta bideetako arrisku eta deserosotasunei ohituta zeudenak. Hurrengo goizean Bentatik beherantzako bidean abiatzen zirenek zorigaiztoko baten gorpu biluzia topatzen zuten. Denboraldi batez izua eta amorrua inguruetako bidaiari eta merkatarien bihotzen jabe egiten ziren. Ahanzturak guztia ezabatu arte.

Errepidearen erdian zaku astun bat bezala zegoen norbait etzanik. Eguzkiaren azken printzek haizeak durduriatzen zituen hostroen arteko zirrikituak profitatzen zituzten, eguratsari kutsu zalantzakorra itsatsiz. Etzanik zegoenetik hamarren bat metrotara geldiarazi zuen mandoa ordurarte bideko arriskuei adi baino bere pentsamenduetan dostatzen zihoan merkatariak. Arrantza urduria egin zuen mandoak. Hauts gai-

nean etzaniko gorputza ez zen mugitu. Segada baten beldur alboetara begiratu zuen gizonak. Une batez basoan atzera egitea otu zitzaion, baina bide-lapurrak ingurutan bazebiltzan Bentara ailegatzeari zuzenago eritzi zion.

Zerraldo zegoenaren parera iristerakoan itxura oneko gaztea zela ikusi ahal izan zuen. Ez zion odol trazarik asmatu jazkiak orbainduz, eta kolpe batez akabatua zatekeela deliberatu zuen. Une hartantxe kexu ahul bat jaulgi zen gaztearen ahotik eta eskua luzatu zion mandoa urrats zuhurrez gidatzen zuen gizonari. Ezustekoak eraginda jauzi ttipi bat egin zuen honek, eta mandoak jabearen izuaz kutsaturik urruntzeko saioa egin zuen. Merkatariak tinko eutsi zion bridari. Zahatoa deseskegi zuen eta gazteagana hurbildu zen.

Makurtu zenean bestearen eskuan aizto baten dirdira ikusteko beta izan zuen. Atzerakako saltoak ez zion gaztearen aiztokada eragotzi ahal izan. Besoan jo zuen. Borborka hasi zitzaion odola besoko zauritik. Karraixi egin zuen atzerakako beste bi urrats emanez. Mandoaren arrantzak oihartzunez bete zuen basoa. Beste bi gizon

agertu ziren bidera. Batak mandoaren kargu hartu zuen, besteak merkatariarena. Presatu zen gaztea. Aiztoa tinko eusten zuela eraso zion merkatariari, bularrean sartuz bigarren aiztokada. Besotatik heltzen zion gizonak askatu zuen. Merkatariak zaurira eraman zuen mugi zezakeen esku bakarra, aurpegian harridura adierazten zuen keinua marraztu zitzaion.

Aurpegikera horrekin berarekin egingo zuen topo hurrengo goizean Bentatik beherantza abiatu izan zen lehenak. Heriok betirako finkatu zuen aurpegikera, eta lepoko zainak zauri izugarri batez mozturik. Mandoa basoko bazterrak arakatzen hasi zirenean topatu zuten, zama dexente arindurik.

Gorputzeko ikara, animako lotsa.
Zeren egin ditudan amalau eriyotza.
Aditu ezkeroztik diruaren otsa
bidean atera-ta botatzeko poltsa
aterako niola bestela biotza.

Dirua eman ta gero kentzia biziya
ori egiten nuen gauza itsusiya.

Jaunak bere eskutik nenguen utziya
orain errezatzen dut al dudan guziya
arren alkantzatzeko Beraren graziya.

GOARDIEN BURUA, JUAN MACHINVENTA

Inguruetako herrietan eskatu nituen boluntarioak, eta gizon partida inportantea osatu genuen. Beharra bazegoen pizti odolzale hori harrapatu nahi bagenuen. Eta ez zen kometidu erraza izan. Ongi ezagutzen zituen bazterrak, eta hiru egunez haren arrastorik gabe igaro genituenean eskapo egin zigula pentsatzen hasi nintzen. Partidako gizon boluntarioen amorrua nekearekin baretzen joan ordez gehiagora zihoan, eta beldur nintzen hiltzaile madarikatu hori segituan topatzen ez bagenuen ingurutako lehen ezezagunak pagatuko zituela larrutik haren kulpak halako batetan, juiziorik eta batere gabe. Horregatik hirugarren eguneko iluntzean konfidantzazko nituen gizonak bildu nituen kontsejura, haiek jarri nituen koadrila desberdinetako buru, bi koadrila bakoitzeko, kometidu zehatz

batekin, hiltzailearen bizia gordetzea, ahal izanez gero.

Koba eta haitzulo guztiak arakatu genituen. Banekien gu iristerako ez bazuen alde egin inguruan egon behar zuela gorderik, ez bait zitekeen besterik gabe lautadara ateratzera ausartu. Eta gu nekaturik egonagatik, hark gosea zuela kontrario. Zakur amorratuaren erasoa dela beldurgarriena eta kontuz ibiltzeko agindu nien gizonei.

Baserri bat zegoen oihanaren erdian. Bertakoek ez omen zuten azken egunetan gizon arrastorik somatu. Baina iragan gauean zakurrak zaunka aritu zirela eta goizean oilotegian oilo bat falta zela esan zidaten, azeri baten proeza behar zuela izan uste izan zutela; eta famelia gaxo hori alperrik ez izutzearren ez nien inguruan ibili zitzaien arriskuaren berri eman. Lapur baten atzetik genbiltzala adierazi nien eta mesede egingo baligute hantxe gaua pasatzen uztekoa, eskertuko geniela.

Hurrengo goizean abiatu ziren gizonik gehienak basoan barrena. Beste batzu lautadara zeramaten bideetan utzitako zelatarien berri jasotze-

ra bidali nituen, eta neroni bizpahiru boluntariorekin baserria gordetzen geratu nintzen. Egun lasaia izan zen, baina arratsean gizonak ez ziren eskutsik itzuli. Kobazulo baten sakonenean topatu omen zuten gizon bat zekarten haiekin. Ekarri zuten nire aurrera eta aurpegia begiratu nion. Guk genituen informazioen arabera bera izan zitekeen, gaztea, sendoa... Izena galde egin nion han zer egiten zuen esplikatzeko. Hustuta zirudien gazteak, totelka inork ulertu ez zituen hitzak esan zituen. Izena esateko agindu nion berriro, eta berak burua altxatu eta begiratu zidan, begietan dirdira beldurgarria zeukan, eta esan zidan: «Jose dut izena ta Larreina lonbria».

PIZTIAK EZ DU ATSEDEN UNERIK

Lehen urratsak aditzerakoan, sasien artean ezkutatu zen gaztea. Arnasari eutsi zion eta zuhaitzen artetik agertuko zirenen aiduru jarri zen. Aitzurraz batzu, ezpata luzeaz bestetzu, eta denen buru behar zuenak pistola zeraman eskuan. Horiek igaro eta sasiartetik atera zen ekialderantz abiatuz. Ez zituen ehun urrats isil egin, ostera za-

rata entzun zuenerako. Ozta-ozta lortu zuen koadrila berriaren begien bistatik ezkutatzea. Hauek fusilak zeramatzaten eskuetan. Lautadara ateraz gero ez zukeen salbabiderik, oihanean irautea zatekeen bere irtenbide bakarra, bila zebilzkionek nekatu eta alde egina zela pentsa zezaten arte.

Gordelekua topatu eta handik ez mugitzea. Haitzuloan barrena sartu zen, eta sakonera iritsia zela zirudienean, ezkerretara zabaltzen zen sarrera batetatik desagertu zen. Koba hezea, ilunpe hertsia. Gaua iritsi arte itxaron zuen. Orduan zeru zabalera irten zen. Goseak erraiak kixkurtzen zizkion. Katu baten malgutasunaz ibili zuen baserrirainoko bidea.

Ostera haitzulora iristerako hotz zegoen oiloa. Atarian eserita jan zuen, gau ilunean, hor eta han, bila zebilzkionen suak ikusten zituelarik. Egunargiarekin bere txokora erretiratu eta lo egiten saiatu zen. Lo etena egin zuen, aldian belarria kanpoko zaratei adi. Bapatean giza-ahotsen oihartzunak bete zuen koba barnea.

–Hemen izanak gaituk lehen ere!

–Ez dik axolik, maltzurra duk, guk alde egin eta itzuliko zuan agian.

Aiztoa prestatu zuen gazteak. Kobaren sakoneneko hormaren kontra estutu zen. Zuzi baten argiak bete zuen bere gordelekua. Labana bota zuen.

–Hemen zegok!!

Bi sartu ziren eta makilez kolpatu zuten. Arrastaka atera eta kanpoan ukabilka eta makilka berreraso zuten. Goardia buruaren konfidantzazko bi mutilak gaztea eta koadrilako besteen artean jarri ziren. Eskuak lotu eta besotatik helduta eraman zuten urrun ez zegoen baserriraino.

KONFESA ITZAK HIRE KRIMENAK

Zelda kobazuloa bezain hezea zen. Lastairarik gabeko harrizko ohea zuen etzan zitekeen leku bakarra, argia apenas sartzen zen haraino zerua bera ikusteko ere goregi zegoen leiho ttipitik. Atea ireki eta bi goardia agertu ziren; oinetako katea askatu eta eskuak lotu ondoren eskilaretan behera bultzatu zuten gaztea. Zilipurdika iritsi zen sotoraino. Mahai baten atzean eskribaua

zegoen, eta aldamenean jueza. Haraino gidatu zuten bi goardiez gain beste lau zeuden. Guztiak sendo eta makilez hornituak.

Beldurraren dardarak belaunak urtu eta bizkarrezurra korritu zion. Lerdea aho zuloan sikatu zitzaion, urdailetan arantza baten ziztada nabarituz. Haien erdian belaunikarazi zuten, eta ordulaurdenez makilka txikitu zuten. Keinu bat egin bide zuen Juezak, bapatekoan eten bait zuten langintza sei goardiek. Eskribauak luma eskuan zuen baina ez zen deus idazten ari.

«Konfesa itzak hire krimenak!» aditu zuen gazteak. Eta keinu baten aginduari jarraikiz bezala sei goardiek etendako lanari berrekin zioten. Konortea galdu eta bere onera etortzerakoan eskribauak luma eta paper bat eskeintzen ziola ikusi zuen. Errefusatu zituen bai bata eta bai bestea, eta makilkada zaparrada erori zitzaion bizkarrera. Juezak galdera zehatzak egin zizkion. Galdera bakoitzeko makilkada jotzen zion. Gazteak baiezkoa erantzun zien guztiei. Sinatu zuen. Eta goardiek beste makilkada andana bat eman zioten ordainez.

Ogeitabost urte da nere edadia
–nagusi on batentzat ai zer mirabia!–
Ez naiz pekatuaren mantxarik gabia
beti okerrerako abilidadia
penetan pasatzeko eternidadia.

JOSE DUT IZENA ETA LARREINA LONBRIA

Jose dut izena eta Larreina lonbria. Mendaron jaioa naiz orain hogeitabost urte. Etxean gosea besterik ez dugu ezagutu. Azienda eskasa eta lantzeko lur gutxi. Herria eta etxea utzi nituen hamazazpi urterekin kapitalera joateko. Ameriketara joan nahi nuen, baina pasajea pasatzeko dirua behar da eta lan gogorrak eginagatik ez nuen sekula nahikoa aurreratzen. Orain okertua nago. Hilko naute eta dudan lastima bakarra gurasoei sortutako preokupazioa. Madarikatu egiten zaituztet.

Jose det izena ta Larreina lonbria
Mendaron jayua naiz, bertako semia
deskalabratua naiz munduan lajia
amak egin dezala beste bat obia
ain da izugarriya mere maldadia.

Espetxeko atea irekitzeko kargua zuen goardiak mespretxuz begiratu zion hogei urteko mutilari. Patio zabal batetan eduki zuten denbora luzean, eguzki galdak itzal txikienaren esperantza urtzen zuen bitartean. Mutila izkina batetan eseri zen zai. Patioaren bestaldeko atea zabaldu zenean, han agertutako goardia berriak hurbil zekion deiadar egin zion mutilari. Ate hartatik korridore luze eta ilun bat zela medio bisitak izan ohi zireneko gelara iristen zen. Hormaren kontra zegoen bankuan eseri zen mutila eskuak belauetan zeukan pardelaren gainean gurutzatuz.

Goardia berri bat agertu zen eta pardela kendu zion eskutatik. Miaketa erraza izan zuen, ator zuri bat eta jaki batzu besterik ez bait zuen topatu. Atorra mutilari itzuli eta jakiak berarekin eraman zituen «debekaturik dago» esanez. Ia hamar minutu igaro zirenean zabaldu zen ostera atea, eta goardiarekin batera mutilak ezagutu ez zuen gazte bat sartu zen oinak arrastaka, erdi

makurturik. Goardiak atea itxi eta bertan geratu zen bi anaiei begira.

Ez zuten ia hitzik gurutzatu. Mutilak atorra besterik gordetzen ez zuen pardela luzatu zion, eta bere anaia zaharrenak gurasoen berri eskatu zion. Goardiak giltzez jo zuen burnizko atea «amaitu da denbora» garraisi eginez. Gaztea barnealdeko aterantz abiatu zen lehen bezala oinak arrastaka eta mutila burumakur kanpoaldekora.

Gartzelako ate nagusia zabaldu zioten, eta kanpora atera zenean, igande hartako builak harritu egin zuen gaztea. Merkatu eguna zen, presondegi aurrean deiadar, irri, kexu eta algara sinfonia altxatzen zen. Baserritarrek beren merkantzia urrien propaganda egiten zuten Orienteko bitxiak eta zetak salduko balituzte bezala. Gizon bat hurbildu zitzaion atera berriari, eta bere anaiaz galde egin zion. Mutilak lastima hartu zuela ihardetsi, eta gurasoez arduratu zela gaineratu zion kale nagusian barrena abiatu eta gizona pentsakor utzi aurretik.

Lenguan izan zait anaya gazea
lastima egiten zuen nere ikastia.
–Ai zer nola ote diran aita-ama tristiak!
Nitzaz eskarmentatu balitez bestiak...
Ni ere izutzen nau biziya kentziak.

BERTSOLARI BAT DABIL KALETAN KANTARI

Jose Larreinaren zelda berriak kale aldera zeukan leihoa. Plaza aldera, zehazkiago. Anaiaren bisita ondorengo igandean Josek, etzanda zegoela, bertsolari baten kantua aditu zuen. Ez zitzaizkion hitzak iristen, merkatuko zarataren gainetik doinuaren gora beherak bere belarrietaraino ailegatzen baziren ere. Amaitu zuen bertsolariak bere kantua eta handik bosten bat minututara berriro ekin zion. Hurbilago oraingoan. Josek hitz batzu deszifratu ahal izan zituen. Zelda berriko leihoa beheraxeago zegoen, esfortzu bat eginik presoak, leihoko burnietara oratuz, gartzelako hormaren gainetik plazako parte bat ikus zezakeen.

Bertsolariak hirugarrenez kantuari ekin zionean Josek lepoa luzatu zuen ahalik eta espazio

zabalena ikustearren. Bata bestearen atzetik bertsoak mailukadak bailiren erortzen zitzaizkion. Presondegiko kanpo-horma ondoan ari behar zuen kantuan. Bertso paperak saltzen zituen bertsolariak, historia guztiko kriminal odoltsuenaren balentriak kantatzen zituztenak, eta jendearen eskarmenturako idatziak izan zirenak.

Amorrua. Jose Larreina ero baten moduan hasi zen garraisia, bertsolaria madarikatu eta irainduz. Bere garraisiak agian enparantzaraino iritsi ziren, kantua eten eta isilune zamatsua egin bait zen bertan. Zeldako ateko zerrailan ari ziren jadanik goardiak; horietako hiru makilez horniturik sartu ziren. Joseren hanketatik tira egin eta lurrera bota zuten, lurrean makilkadez josi eta odoletan utziz.

Berriro zeldako atea itxi zenean, presoa lurrean zetzan, bertsolariak laugarren aldiz ekin zion bertso papera saltzeko propagandari, eta harlosen kontra masaila estutuz arrabiaz negar egin zuen Jose Larreinak.

Goizaldeko lehen orduan zabaldu ziren presondegiko ateak. Goardien artean, eskuak atzekaldean loturik, kateak oinetan, eta anaiak eramandako ator jadanik higatua soinean, Jose Larreina plazaren erdian eraikitako urkaberantza zeramaten. Aurpegi zurbil, dardarizo batek astindu zuen burutik oinetaraino kondenatua. Jendetzaren artetik sortzen ziren irain eta garraisiak entzungo ez balitu bezala zihoan. Ttu egin zion norbaitek.

Zurezko eskilarak igotzerakoan hankak ez ziren gorputzaren zama eusteko gai izan, eta goardiek besoetatik eutsirik eraman zuten aulkiaren albora. Borreroak eser arazi zuen eta zerbait esan zion. Apaizak kontsolamenduzko hitzak marmarkatu zizkion, eta gurutzearen zeinua egin zuen Larreinaren begi lausotuen aurrean.

Larruzko korreak estutu zion zintzurra, eta borreroak torlojuari bira ematerako konorte gabe zegoen Larreina. Aizkora zorrotz batez zatikatu zuten haren gorpua, eta bihotza atera on-

doren kutxa batetan sartu zuten Mendarora igortzeko.

Jendetza barreiatu zenean, arotzak urkabea desegiten hasi ziren eta haize bolada hotz baten xistu lugubreak trabeskatu zuen plaza.

Jainkoaren aurrerako nik daukadan lotsa,
zeren egin ditudan ainbat eriyotza
azkeneko sententziya izain da zorrotza
lau laurden egin eta kentzeko biyotza
ai! ura urkaberako aiziaren otza!

Odolaren usaina

Goiko kaletik etorrita zebilkien txaranga batek jendea buila etengabean. Pieza bat bestearekin lotuz, tronpetistak apenas jarrai zezakeen bonbojolearen erritmo beldurgarria. Hango zaratak erraz disimulatzen zituen estridentzia eta desafinoak ez zitzaizkion inori ajola. Garagardoa plastiko xurizko edalontzitan, inork nondik atera ote zen ez zekien zahatoaren ahora hurbiltzen ziren muturrak; abilidade eta oreka mantentzea lortzen zutenak txorroa ahalik eta urrunenetik zuzentzeko ahaleginetan zebiltzan. Aufika eta ufika, sigi-saga, patxaren ahotsez, besoa kidearen sorbalda gainetik igaroz, barkura sekulan ez igotako gazte koadrilek marinel kantuak entonatzen zituzten, estrofak amaitzeke utziz eta pentagramaren aginduak jauzien martxara egokituz.

Plazaren erdian sanjuan sua izandakoa hauts, errauts eta sugar besterik ez zen, haurrek ordurarte saltoka ibilitako gazte bipilei txanda hartu zieten. Gau gazteari, denbora azken zukurarte

profitatzeko desio sakona irribarrean nabari zitzaion.

Gela hark leiho bakarra zuen, koadro itsu baten gisara. Kaleko faroen argi apal laranska nagiz filtratzen zen pertsianetatik kalea beha zegoen gizonaren aurpegia horizontalki marratuz. Musika baten hotsa ere iristen zen haraino. Herriko festak ziren. Hortzartetik, ahots apalez, txarangaren batek sortua izan behar zuen piezaren letra marmarkatu zuen gizonak.

Ezagututako festa guztien oroitza irudi bakar batetan laburbiltzen zen gizonaren irudimenean. Taberna leporaino beterik oroitzen zuen, bost garagardo, txanpan kopa bi eta tonika bat eskatzearren barraraino hurbiltzeko saio izerditsuan ari zen, giza-hesi jostari eta penetragaitzak eragozten zion haraino iristeko esfortzu oro. Alboan zeukan morroietako bat itzuli egin zen, garagardo botila luzatu, lepotik heldu eta bozgoragailuetatik isurtzen zen doinuari jarraiki, beste guztiekin batera saltaka hasi ziren.

Eskuan zeukan edalontzitik ur tragoa edan zuen. Bero egiten zuen. Koltxoi alboan zeukan zigarro paketea bilatu zuen, eta hutsik topatu. Ilunpean zegoen etxea. Pasiloan barrena abiatu zen, ezkerreko eskuaz horma segituz. Komuneko atea. Beste gelako atea. Atea bultzatu zuen. Zurrunga neke bat, giza usain sarkorrak agurtu zuen. Mugimendu azkar eta urduri bat iritsi zen bi ohetariko batetatik:

–Zer!? –harridura eta lo etena adierazten zituen ahotsak.

–Lasai –esan zuen gelan sartu berriak–, ba al daukak zigarrorik?

–Bai, har ezak –bere oheraino hurbildu zenari paketea luzatu zion esnatu berriak–. Ze, ezin al duk lorik egin?

–Ez.

–Bestea lo al zegok?

–Baietz uste diat. Beno, hi, gabon.

–Bale... Aizak hi, utz egidak zigarroren bat bada ez bada ere.

Bere gelara itzulita, ohean etzan bilutsik eta zigarroa piztu zuen, mahai gainean zegoen hau-

tsontzia hurbildu gabe. Kanpoan festak jarraitzen zuen. Etxea isil eta bare zegoen.

Etxe arrunta, munduan dauden beste hainbat bezalakoa. Bi logela, komuna, sukaldea eta egongela, orain logela ere bilakatua. Lau gizon arrunt daude bertan. Gero bada beste bat noiz behinka etortzen dena egunkaria, tabakoa, jana eta liburu batzurekin.

Goizean goiz iristen da. Ateko bi sarrailak giltzez zabaltzen ditu. Isilik sukalderaino iristen da, eta mahai gainean uzten du erosketen poltsa. Batzutan egongelako atea zabalik dago. Besaulkian, egongelan bertan lo egiten duena zigarro bat erretzen ari da. Ezin jakin zenbagarrena, jeiki berri den, edo gaua ezin loak hartu igaro eta zigarroak bata bestearen atzetik errez egon den, ilunpean, noiz sugar ttipiari so eginez, noiz gauaren zaratei beha.

–Kaixo –esan dio sartu berriak–, berririk? Besaulkian jezarrita dagoenaren begiradan galdera ironikoa izan ote den asmatu nahia somatzen da.

–Ez.

–Besteak lo al zeudek?

–Uste diat ezetz... Hik ba al duk berririk?

Iritsi denaren ahotsean ezezkoa ahoskatu beharrak sortzen dion desgustoa nabari daiteke.

–Ez... Hor ekarri dizuet egunkaria eta libururen bat ere. Topatu dudana. Beno, lanera joan behar diat. Adio!

–Adio...

Eta etxea isilik geratzen da ostera une batzuz. Besaulkian dagoenak sukalderantz begiratzen du mahai gainean geratu den poltsaraino iristeko behar indarrak bilduz-edo. Gero, gela bateko atea zabaltzen da, sukalde ondoko gelako atea, norbait oinutsik doa komunera, pisa egiten du, eta pasiloan zehar egongelara iristen da. Kantzontziloak eta manka motxeko alkondara bat besterik ez daramatza soinean.

Egunonak gurutzatzen dituzte iritsi berriak eta besaulkian datzanak.

–Ekarri al dik egunkaria?

–Bai, hor daukak sukaldeko mahai gainean. Sukaldeko mahai gainean zabaltzen du egunkaria eta orriak azkar igarotzen ditu zerbaiten bila.

Egunkaria tolestu du ostera eta egongelatik mugitu ez denari zuzentzen zaio.

–Berririk ez ziok, ezta? –Eta erantzuna itxaron gabe– Gosaldu al duk?

–Ez.

–Nahi duk kafe bat?

Ari da dagoeneko kafetera italiarra prestatzen. Bezperako kondarrak lapiko batetara isuri ditu. Kafeterako hiru piezak metodikoki ureztatu ditu. Behekoa urez bete, erdikoa kafe xehetuz, eta erroskaz isten du kafetera surtan jarriz.

–Orain irakurri behar al duk egunkaria?

–Ez, har ezak.

Marmarrean mintzo dira, ez arrisku ziur baten beldurrez, balizkoez baizik, ohituraz kasik. Mugimenduak mantsoak dira, apartamenduaren metro karratu guztiak bere osotasunean profitatu nahi izango balituzte bezala; distantziari, ez duen malgutasuna eman nahi izango baliote bezala. Gurutzamendu posible guztien diseinuak zolua guztiz beztuko luke, egunean zeharreko urratsen joan etorriaren poderioz. Espazio bat bete, hitz gutxirekin, gertaerarik gabe, zerarik nimiñoena gertaera bilakatuz. Eta pentsamen-

duek, ametsek, desirek beren erreinu eta basetxeak eraikitzen dituzte, hala itsasertzean nola haize epel batek ferekatuko lituzkeen muino eta tontorretan. Gorputz atalak zamatsu egiten dira, eta une berean ernetu, ikugarri, erreal, konsziente bilakatzen dira. Hazkazal baten, hatz-marken infinitoan murgiltzen da begirada –hormen kontra, betiko horma berberen kontra oztopatzeaz kamusten den begirada hori bera– espazio askeen bila.

Sukaldean, kafea borborka ateratzen da kafetera italiarraren tututik. Boltsatik ateratako liburuak begiratzen ari zenak itzali du sua, eta katilu bi atera ditu. Egongelakoa zigarro bat erretzen ari da. Ondoko gelan, beste biek, goizeroko jinasiari ekin diote. Hogei flexio ahospez, besoak tolestuz, giharreak esnatuz. Ondoren, batak bestearen txonkatilak eusten ditu eta hankak goratzen ditu bestearen esku zabalduak ikutzen saiatuz. Txandakatuz ari dira. Orain bestea da txonkatilak eusten dizkiona, etzanik dago, aurpegia sapairantz zuzendurik, besoak buru atzean plegaturik, eta aurrera egiten du sabeleko giharreak tenkatuz, sudurraz belaunak ikutu nahian.

Hamar, hogei, hogeitamar flexio erditzalean. Izerditan ari dira biak amaitzerako. Egun beroa igartzen da pertsianen bestaldean.

Egongelako leihotik begiratuta edifizio bat ikusten da enparantzaren beste aldean. Etxeko gizonetariko bat leiho itxira hurbildu da zirrikituetatik kanpora begiratzeko. Goizez ematen du eguzkiak aurreko etxebizitzan. Leihoetariko batetara atorluzez jantzitako neska adats luze bat agertu da, eskuak leihoko ertzean ezarriz arnasa hartu du, sakonki, bizpahiru aldiz. Gero eskuekin itzal eginez gizona dagoeneko leiho itxirantza begiratu du. Une batez, horrela, higitzeke egon ondoren, barneratu eta berriro agertzean oheko tapakiak dakartza. Leihotik kanpora astintzeari ekin dio. Lana amaitu eta berriro ere so egin du aurreko etxerantz, pertsiana itxirantza. Gizonak, badazpada ere, zigarroa amata du hautsontzian. Neskak ileak atondu ditu keinu arin batez. Kontrabentanak erditxi ditu bat batean, eta utzitako zirrikitutik beso bi agertu dira ator luze bat zintzilikatzeko. Gizonaren begirada goizaldeko haize freskoaren nahira balantzatzen den atorluzean iltzekaturik geratu da.

Bazkalondoan karta-jokoan ari dira lau gizonak mahaiaren inguruan. Mus akoltxatua, agresibitate gabeko enbidoak gurutzatzen dituzte. Keinuak. Tantu zenbatzea. Tabernetako musaldien zalapartatik urrun. Laurak arterako denbora betetzen du jokoak. Orduan, jinasia egiten aritu izan diren biak mahaitik altxa eta harrikoa egitera joan dira sukaldera. Beste biak hizketan geratu dira.

Zurezko mahaia babesten plastikozko mantela dago. Ogi papurrez eta pospolo itzaliez egindako diseinu bat burutzen ari da bertan bi gizonetariko bat. Sukaldean, iturritik ateratzen den txorrotada xumearen azpian jartzen ditu batek plater eta edalontziak, gero besteari ematen dizkio, honek eskutrapuaz xukatu ditzan. Egongelako biak barrezka ari dira. Eskutrapua utzi eta egongelara doa beste biei isilago mintza daitezen agintzera.

Egongelakoek plastikozko mantela jaso dute. Batak papurrak jaso eta sukaldeko zakarrontzira daramatzan bitartean, besteak mantela tolestu

eta armairu batean sartzen du. Gero egongelara itzuli dira. Goizean egunkaria irakurri duenak berriro hartu du eskuetan zenbait artikulu patxara gehiagoz irakurri asmoz. Bestea besaulkian eseri da liburu bat hartuta. Segituan dago lo.

Esnatzerakoan, begiak erdi zabalduz, bestea atzeman du posizio berean mahaian eserita, libururen bat irakurtzen, edo gurutzegramaren bat betetzeko saioan. Besaulkian eserita dagoen moduan ez du mahai-gaina ikusten ahal. Hitz batzu zuzendu dizkiote elkarri, eta esnatu berria sukaldera abiatu da garagardo banaren bila. Egunkaria utzi, eta bestea leihora hurbildu da, kanpora begiratzeko. Plazaren beste aldean dagoen etxebizitza itzalean dago orain. Leiho gehienak, halere, itxirik daude. Leihoetariko batetatik ator luze bat dago zintzilik.

–Hemen duk –esan dio besteak, sukaldetik bueltan.

Leihokoa mahaira hurbildu da nagiki.

–Besteak siestan al zeudek oraindik? –galdegin du.

–Ez, esna zeudek, zeozer irakurtzen ari dituk –erantzun, eta garagardo botila bertatik edan du–, egingo al diagu musean?

–Nahi baduk –liburua itxi, eta berak ere garagardo botila bertatik edan du.

–Abisatu egiek horiei –esan dio besteak altzari baten gainetik karta baraja hartuz.

Pasiloan abiatu da, isilik, beste biak dauden gelaraino.

Marmarrean mintzo dira lau gizonak mahai borobilaren inguruan. Kartak banatzen dituzte, tantoak eta hamarrekoak zenbatzen dituzte, enbido eta hordago bareak jaulgitzen dira haien ahoetatik. Garagardoa edaten dute trago ttipitan, eta gela kez bete da etengabe erretzen dituzten zigarroen ondorioz.

Iluntzen duenean ez dago zeregin askorik, horregatik azken argiarekin afaltzen dute. Kafea hartuz zigarroak erretzen dituzte eta mintzatzen dira. Gai zehatzik gabe, gauza handirik esan gabe, egunkariko berrietaz. Guztiek buruan dutenaz ez dute hitz egiten.

Gaur harrikoa egin duena, jeiki, eta gelara doa. Bertan irrati ttipi bat hartu eta bolumina ahalik eta apalen jarriz, irratia belarrira pegatuta entzuten ditu berriak, gelan jadanik nagusi den iluntasunean zigarro bat errez. Handik piska batetara bestea iristen da eta irratiko berrietaz galde egiten dio. Berak ere zigarro bat pizten du.

Hautsontzirik ez dute gelan, beraz iritsi berria sukaldera doa hautsontzi garbi baten bila. Sukaldean beste bat dago hozkailutik garagardo bat ateratzekotan. Hautsontziaren bila etorri denari irratiak berririk eman duen galdetu dio.

Hozkailua itxi eta garagardoa hartuta egongelara doa.

–Emaidak tragu bat –eskatu dio besteak.

–Hi, horrek ez al zian iluntzean bueltatu behar?

–Bai.

–Zer ordu duk?

–Hamarrak inguru.

Isildu dira biak. Batak garagardo botilatik tragua hartu du. Besteak beste zigarro bat piztu eta beste biak dauden gelarantz doa. Garagardoa edaten ari dena leihotik kalera begira geratu da.

Ez da mugimendurik somatzen. Ez dirudi ilargirik dagoenik ortzean. Kotxe handi baten argiak agertu dira ezkerraldetik, atzetik kotxe txiki batenak. Handia, maldaren erdi aldean, eskubikaldera baztertu eta geratu egin da. Txikiak aurrera egin du. Eta ia segituan handia haren atzetik doa. Txikiak maldaren gorenera iritsi, ezkerreko bidera sartu eta buelta hartu du, berriro ere beherantza abiatuz. Handia maldaren gorenera iristerako txikiak lehen handia gelditu den parean aparkatzeari ekin dio. Handiak, txikiak egin duen itzuli bera egin eta lehen gelditu den leku berdinean, baina oraingoan beherantz begira, gelditu da. Kotxe handitik gizon bat atera da. Instant batzu berantago kotxe txikitik emakume bat. Gizonak galtzada gurutzatu du emakumeaganantza. Kotxe txikiaren alboan gurutzatu dituzte besoak, batak bestearen bizkar atzetik pasatuz; eta alboko eskaratzera daraman mailadia igo dute gisa horretan. Barre batzu entzun dira gauean.

Laurak elkartu dira egongelan. Falta dena iluntzean ez itzultzea larria izan liteke, baina ez daukate jakiteko modurik. Handik ateratzea proposatzen du batek, baina ez dago horretarako modu egokirik.

Zigarro piloa erretzen dute gauza berari mila buelta eman eta ez dagoen irtenbide baten bila. Azkenerako oheratzea erabaki eta geletara doaz. Goizaldeko ordubiak dira. Egongelan lo egiten duena bertan geratu da. Leihotik begiratu du eta aurreko etxebizitzako leihoan ez du ator luzerik eskegita ikusi. Kalera begiratu du. Ez da festa zaratarik aditzen.

Erropak erantzi gabe oheratu eta lo hartzen saiatu da. Orduerdiren buruan jeiki eta zigarro bat eskatzera doa pasillo ilunean barrena besteen gelara. Zarata ttipi bat entzun du sarrerako atean. Kolpe batez zabaldu da atea, ikusi ditu eta geletan dauden hiru kideei garraisi egin die:

–...

Eranskinak

06:33

Iratzargailuak jo zuen, karkail-zotin errepikatua gelako lau hormen kontra projektatuz, berorietan errebotatu ondoren X.ren belarri zuloetan barrena abiatzeko. Hotsak plazer ezkutua hartzen zion nonbait gizaki gizarajo eta lokartu baten tinpanoa mailukatzeari. Eta X. iratzargailuaren intentzio aitortezinei jaramonik egin gabe, iratzargailuaren ustezko gurasoez oroitu zen modu ez aski gizabidetsuz, iratzargailuek batere gurasorik ez dutela kontuan hartzen hadugu.

Esnatzerakoan izan ohi den kalkulurako trebezia ezari jarraikiz, eskukada itsuak bota zituen X.k bere mesanotxerantz, bidean hautsontzia, edalontzi bat, betaurrekoak, hamargarren orrialdean abandonatu zuen nobela poliziakoa, tabakoa eta han egoteko batere obligaziorik ez zuen beste zenbait traste, kolore susmagarriko moketa musukatzera bidali zituen. Bienbitartean iratzargailuaren esfera fosforezentea berataz trufa-

tzen zen armairu tzarraren gainean ongi asko babesturik. Zalantzarik gabe X.k hobeki ezagutzen zuen bere burua oheratzerakoan esnatzeko orduan baino. Makarren sarea ez apurtzeko esfortzu pribilejiatuak eginez jeiki zen, bi urrats t'erdiz hurbildu zen armairura, eskua luzatu zuen, eta behingoz, baina ez behin betirako, isilerazi zuen iratzargailu alua. Zer arraiotarako ezarri zuen iratzargailua goizaldeko sei t'erdietan, minutu batzu lehenago ezin askatu ibili zen arazo bera izaten jarraitzen zuen. Ez zen horratio etsipenaren zantzurik marraztu X.ren ariman. Aitzitik, bi urrats t'erdiak desibili zituen, eta loaren epela xuhurki gordetzen zuten izeren artean murgildu zen ostera, maskuriaren dei larri eta zorionez isilei jaramonik egiteke.

Bost minutukoa iruditu zitzaion, baina egiazki orduerdikoa izan zen epearen buruan tximista traidore batek jota bezala eseri zen X. ohean. Oroitu zuen! «Kakaputza!», «Ostia!» eta «Zotz!» aldarrikatu zuen bezperako oheratze alkoholikoa salatzen zuen ahots luto batez komunera lasterka abiatzen zenarekin batera. Komuneko estalkia altxata zegoela esker xorrotadaren ehuneko

hirurogeitamabosta komunzuloan zirauen gernu zaharrarekin batu zen, beste ehuneko hogeitabostak, objetibotik kanpo isuriz pijamaren galtzak zipriztindu zizkion.

Txilibitua astintzerakoan eguneko lehen pentsamendu koherentziazkoa iruditu zitzaiona izan zuen, jeikitzeak berak ez zuela merezi, alegia. Eta, loak, maltzurki, bere begien ertzetan itsatsirik jarraitzeko deliberoa hartua zuen. Gelara itzulirik armairu gainean, orain mutu zirauen iratzargailuari begirada ez oso maitekorrez so egin zion armairuaren ispiluzko ateak zabaldu aurretik. Bertan eskegita zeuden arropen artean xerka hasi zen. Hau ez, eta hori ere ez, zein ote jantzirik egokiena.

Exekutibo jaka eta galtzak hautatu ostean fantasiazko ator laranja-berde bat erreskatatu zuen, batere ez zihoakion korbata hori-more batekin. Ausnartze une batetan eskua okotzera eraman eta bisaia zikintzen zion hiru egunetako bizarrari desegoki eritziz komunera abiatu zen ostera bizarra egiteko asmo sakonak gidaturik.

Bisaia ur epelez busti zuen, ezkerreko eskuan zabaldu zuen xaboia enbaseari hogeitalauren

bat aldiz eragin ondoren, eta xuabeki aplikatu zuen. Gero, erdoiltzear zeuden xilet bildumatik dexenteena aukeratu, eta esku dardartiz matrailera hurbildu zuen. Lehen pasadan ile urri batzu baino ez zuen moztu nahi izan xilet alferrak. Bigarrenerako indartsuagoki itsatsi zuen xiletaren aho kamutsa bere haragi lotira. Ondorioa askozaz ere hobea. Ez telebistako anuntzio gezurtien parekoa, baina tira! Hirugarren, laugarren eta bostgarren pasadak, bigarrenaren gisa, goitik beherakoak izan ziren. Lanaren laurdena burutua zeukala pentsatuko zukeen, pentsatze hutsak bere zereginetik desbidera zezakeela inkoszienteki ikasia izan ez balu. Ezkerraldeko masailari ekin zion, eta jadanik iletxoz beteta zeuden xiletaren bi hostoek –batak moztu, bigarrenak findu– oztopoa topatu zuten. Indar egin zuen X.k beherantza, iletxoak garbitzeko nagiegi bait zen, baina oztopoak hor zirauen: mekaguenzotz eta tira fuerteago beherantza babo arraioa, sekulako sarraskia egin zuen masailean, xaboi xuriaren azpian odol eta haragi bizizko autopista baten diseinu gorri dekoratiboa osatzen hasi zelarik.

Urez garbitu zuen bisaia X.k. Erre egiten zion zauria ispiluan konprobatzeko adina indar ez zuen. Kanila itxi, komuneko paper mordoa jarri zuen masail zaurituan. Telefonoa deseskegi zuen, eta etsituki ohean sartu zen. Ezeren esperantza zehazkaitz batek gidaturik. Edo auskalo.

11:59

Eguzki galdak bertikalki jotzen zuen zezen-plazaren gainetik. Eleizako erloju urrunak eguerdia jo zuen eta kanpai hotsak patxaran pausaturik zegoen uso aldra haizatu zuen. Anjelusaren ondotik, zezen-plazan isiltasun eutsiak agurtu zuen desafioa. Ezpalak kupidagabeki saltatzen ziren aizkoraren grinaren pean.

Kanaerdikoena amaitu ondoren, kanakoen lanari ekin zion Mielanjelek. Ordurako Gorriti IV.ak enbor baten aldea kentzen zion. Ez zen bere aurpegian estuasunaren trazarik antzematen. Kolpe bakoitzean bere giharreak urteek emandako trinkotasunaz tenkatzen ziren. Hurrengo kolperako tartean gorputza elastikoki luzatzen zen, goitik beherako kolpe berria behar adinako inda-

rrez ematearren. Bere botileroaren begiradan ikusten zuen kontrarioa larri zebilkiola. Baserriko atarian ariko balitz bezala egiten zion lanari. Mielanjelen kopeta berriz, begibista iluntzen zizkion iturrien sorburu zen. Mankarik gabeko kamiseta deportiboaren urdinean mapa ezezagunak nabarmentzen ziren; izerdia praketatik behera nabari zezakeen, pisa egin izan balu bezala. Kolpekada bizia zeukan, besteak baino indar gehiago galtzen zuen kolpekada bakoitzean, eta enborrak ez zion berak nahi adina eskertzen. Enborra samurra zela, gurinezkoa zela, pentsatzen egiten zituen esfortzuak Mielanjelek, begi ertzarekin bestearen bizkarra galdu gabe. Gorriti IV.ak amaitu zuen kanako bigarren enborra. Arin salto egin eta aizkora askatu gabe lurrean pausatu zuen, beste eskuan botila hartu eta eztarria freskatuz. Erreportero grafikoak argazkiaren perspektiban Mielanjelen esfortzua enkuadratzen saiatu ziren.

Bat, bi, hiru kolpetan amaitu zuen Mielanjelek bere enborrarekin. Laguntzaileak, arnas hartzeko betarik eman gabe bultzatu zuen hurrengora, Gorritiren lasaitasunak ez zezan desmoralizatu.

Hasi ziren biak berriro ere txalaparta kamusturen baten erritmoa markatuz. Mielanjelek bestearen bi halako emanez. Eta Gorriti, apostuari emozioa erantsi nahi izango balio bezala, erritmoa motelduz.

Gaztearen enborra gogorragoa zen. Ahurreko lazturak ireki zitzaizkion azkenerako eta odolez busti zen euskarria. Odola eta izerdia nahastu ziren zurarekin, aizkorak eskapo egin nahi ziola nabaritzen zuela Mielanjelek. «Ez etsi! Jo! Benga! Emaiok!». Eta klak!, eta klak!

Laugarren enborra elkarrekin hasi zuten. Gorriti ere sufritzen hasia zen. Baina apostuak bere alde zeuden, ikuslegoak zaharraren jakindurian gaztearen ahaleginean baino konfidantza gehiago agertzen zuelarik. Ia batera altxatzen zuten aizkora, pendulo bero baten modura astunki erortzen uzteko, indarrez, bortxaz, enborraren mamia bilatuz.

Oihua altxa zen zeru urdinera. Zezen-plazan garraisi ttipiak eta hasperen gordeak nagusitu ziren. Aizkolaria hondarrean etzan zen aizkora oinean inkatuta. Deportibo txuria gorritzen hasi zen aizkoraren ahoa sarturik zegoen inguruan.

Erdi ebakitako enborra zipriztindua zegoen. Botikinekoak korrika zetozen. Argazkilariek lehen planoak hartzen zituzten, oinetik sufrimenduzko aurpegira txandakatuz. Gorriti lurretik, mina hortzen artean gordez, beragana hurbildu zen Mielanjeli mintzatu zitzaion:

–Segi ezak, motell! Hirea duk apostua eta!!

17:42

Sentimendu gaizto batek trabeskatzen zuen Lorenzo «El puntilla»ren kopeta. Arratsaldeko hirugarrena eta seigarrena egokitu zitzaizkion, eta bere lehen zezenak burua nola okertzen zuen ikusi bezain pronto arratsalde beltza izango zela asmatu zuen. Kapotazotan kapotea zezenaren adarretan eskegi zitzaion; banderilla parea jartzen zuzendu nahi izan zuen faena, eta bizkarretik baino begitik hurbilago sartu zen banderilla bakarra ezartzea lortzeaz gain, burladerora abiatzerakoan, estropuz egin eta arkakuso eta zorriz betetako harea musukatu zuen, koadrilakoek kapotazoka urrundu behar izan zutelarik zezen amorratua. Pikatzailearen txanda ere ez zen

hobea izan, zezenak bitan bota zituen lurrera zaldi eta zalduna, publikoaren artean algara eta trufa sortuz. Lana azkar amaitzeko agindu zuen presidentziak, apika Lorenzo «El puntilla»ren espezialitatea dastatzeko irrika ezkutuak bultzaturik. Lautan saiatu zen ezpatarekin lana amaitzen, eta ikuslego dibertituaren eskabideari jaramon eginez, puntilaz akabatu zuen zezena. Okerrago oraindik, heriotzaren dardar artetik zezenak irri egiten ziola iruditu zitzaion Lorenzori.

Maisuaren kopeta iluna erreparatuz, koadrilako batek kontsolatu nahi izan zuen zezen toreatzailea:

–Ez arduratu, maeztro. Ongi aterako da faena.

Ternako bigarrena ohorezko itzulia amaitzen ari zen, buztana eta belarri biak eskutan, jendeak botatzen zizkion traste, zahato eta loreak jaso eta keinu airosoz bueltatuz.

Ez zion inori konfesatu, baina Amabirjinari zin egin zion (norbaiti egin behar bait zion zin) hurrengo zezena ere puntilaz akabatu behar bazuen, ofizioa utzi eta gurasoen tabernan hasiko

zela lanean, toreoa eta zezen plazak behin betirako abandonatuz.

Jo zuen abisua orkestak, barrabilak ondo kokatu zituen Lorenzok; ikuslegoaren artean nabari zen prestuago zeudela zirkoko pailazoen emanaldi batetarako, zezena eta gizonaren arteko borroka desberdin eta mitikorako baino. Lorenzo «El puntilla»ri eskeinitako txalo zaparradaren azpitik antzematen zen irri-karkaila itoa.

Behar bezalako pase parea egindakoan bularrean konfidantza kimua hazten sentitu zuen toreroak. Jendeak hasieran trufaz botatako «oleee»ak, mirespenerantz aldatu ziren. Eta banderilak egoki ezarri zizkiotela ikusiz, eta pikadoreak sekulako zaztadak eman zizkiola konprobatuz, bere zinegitea berritu zuen Lorenzok.

Burladerotik ezpata luzatu ziotenean xuxurlatu zion koadrilako batek:

–Hirea duk arratsaldea, maeztro!

Eta Lorenzo «El puntilla»k irribarre egin zion. Itzalaldera jo zuen ongi gaztigaturiko zezenak, eta toreroak muturraren aurrean zabaldu zion oihala. Irakurlearen hipnotismoz behatzen zuen zezen odolustuak beherantz, bere odolaren kolo-

rea zuen oihalean enigma ezkuturen bat idoro nahi bailuen, toreroari bere lana patxara ederrean bete zezan aukera eskeiniz. Ezpata eskumuturreraino sartzearen plazerea ezagutzerakoan, ametsetan ari zela pentsatu zuen Lorenzok. Mutu zirauen ikuslegoak pentsatu bide zuen bezala.

Baina ez zen erori zezena. Herio berandututzen ari zen. Txaloka hasi zen jendeak erdibidean geldiarazi zituen eskuak, torero eta zezenak osatutako estatua taurinoa kontenplatzeko. Urrats bat eman zuen Lorenzok zezenaren muturrerantz, «Arratsaldea izorratzen badidak akatuko haut» pentsatuz. Bapatean zezenak buruaz balantza mugimendu behetik gorako bat egin zuen eskubiko adarra toreroaren eskubiko iztarrean sartuz. Batera erori ziren biak lurrera. Lorenzok, minaren minez juramentuka, zezenaren muturrean irribarre sarkastiko baten keinua ikusi uste izan zuen, publikoaren algaren oihartzuna belarrietatik aldenduz konortea galdu baino lehen.

Zinema parrokialeko ataria jendez gainezka ageri zen. Ikuskizunak zortzi t'erdietan hasi behar omen zuen, baina ateak itxirik zeuden. Txartelak erosteko leihatila ere itxirik zegoen, ohar batetan «ez dago txartelik» irakur zitekeelarik. Izan ere, sekulako propaganda egin zitzaion udaleko irratitik kapitaletik zetorren komediante tropari: obra primerakoa, antzesle ezin hobeak, eta horiek ikusteko aukera bakarra abuztuaren zortzian, arratsaldeko zortzi t'erdietan, zinema parrokialean. Gainera, herriko gazteen artean figurante lana egiteko boluntarioak eskatu zituzten. «Blood Smell Antzerki Talde Krudela»k William Shakespeareren «Titus Andronicus» lana eskeini behar zuen, kultur kontseilaritza, diputazio eta udaletxearen babesean. Estraineko aldiz eman behar zuten, eta antzerkizalea zelako oso aukeratu zuten herri hura lehen emanaldi horretarako.

Zabaldu zituzten ateak. Lehen erreskadetan, palkorik ez bait zegoen, alkatea, diputatu orokorra, kultur diputatua eta kultur kontseilaria zegozkien emazteekin eseri ziren. Okasiorako be-

rritua izan zen zinema salaren itxurak azken bi hilabeteetan bertaratu ezin izan zuten herritarrengan mirespena sortu zuen. Oihalaren artetik gizon ilezuri bat eta erromatarrez jantzirik egon arren korbata zeraman gazte bat agertu ziren. Ingelesa zen zuzendaria, eta gazteak ahal bezala, trabatuz eta horrela itzuli zuen haren espitxa. Zoriontsu sentitzen zela euskaldunen artean, zeren euskaldunek bazuten zerbait, berak orain-dik zehatz ez zezakeen zerbait, eta espero zuela berak eta antzesle gazteek buruturiko lana guztien gustokoa izanen zela. Adaptazio libre samarra burutu zutela, eta obraren ezagutza sakona zuten ikusleek erraz igarriko zutela adierazi zuen gazteak. Hautetsiek disimuluzko begiradak gurutzatu zituzten elkarren artean. Jendea urduri zegoen, ez ote zen obra sekulan hasiko. Amaitzeko, zuzendari ingelesak esan zuen bihotzeko eritasunik zuenik baldin bazen ikusleen artean, hobe zukeela telebistan ematen ari ziren telesaila ikustera etxeratzea.

Besterik gabe itzali ziren argiak, oihala zabaltzen zela entzun zuen jendeak. Bost argi fokoz argitu zen eszenatokia, hondoan, lantza bana sa-

belean sartuta zuten herriko gazte bi ikusi ahal izan zituen ikuslego harrituak. Efektu berezien errealismoa benetan itzela iruditu zitzaion alkateari, baina ez zuen molestatu nahi izan bere alboan zegoen ministraria obraren lehen pasartetatik hasita.

Hasi ziren antzesleen hitzaldiak, eta Titus Andronicus eta Tamora gotoen erregina eztabaidan sartu ziren. Ondorio gisa, lehenak heriotzera kondenatu zuen bigarrenaren semeetariko bat. Herriko alkatearen semeak jokatzen zuen Tamora erregin gotoaren semearena. Alkatearen ezpainetan urguilozko irribarrea marraztu zen. Agertu zen beste antzesle bat eta Tamoraren semearen oinetara oihal xuri bat zabaldu zuen. Kultur kontseilari-ordeak satisfazioz erreparatu zuen detailea Zuberoako pastoraletik hartua izan zela. Bienbitartean Titusek ezpata atera eta bere hitzaldia eten gabe, alde batetik bestera trabeskatu zuen alkatearen semearen gorputza. «Erredíola! balio dik teatrorako!» pentsatu zuen alkateak; bere emazteak halabaina ez zuen gauza bera pentsatu, iruditu bait zitzaion efektu berezietako kargudunak tinta gehiegi jarri zuela,

zipriztinek estreinaldirako propio erosi zuen soineko horia orbaindu zioten eta. Erretiratu zuten Tamoraren semea oholtzan arrasto gorri bat utziz, erregina negarretan ari zen bitartean.

Ikuskizuna hasi eta ordubeteren buruan, lehen erreskadetan eseririk zeuden hautetsiek tanta eta zipriztin gorriez zikindurik zituzten jazkiak. Deserosotasuna disimulatzen zuten ahopeka elkarri zuzentzen zizkioten obrari buruzko komentario laudagarriak eginez. Atzekaldeko erreskadetan berriz gero eta hutsune gehiago zegoen, jendeak nahiago zuen antza, telebistako tele-saileko tirokatzea ikusi.

Hiru orduren buruan, obra amaitzear zegoen. Figurante gisa kontratatu zituzten herriko gazte guztiek egin zuten jadanik beren lana. Atera eta sartu, labana, lantza, aizkora edo beste ezein gailu zorrotzez trabeskatuak izan ondoren. Titusen hitzek aditzera eman zuten trajediaren azken aktoa hastera zihoala.

Hautetsiek ez zuten ondo ulertu antzesle guztiak armez horniturik beren aurrean lerroan ezarri zirenean. Txalo egin behar ote zuten ez zekiten. Horrela eginez gero jarraituko zien inon-

go herritarrik ez zegoela salan ez zekiten bezala. Antzesleek salto egin eta obra akabatu zuten. Zuzendari ingelesak txalorik itxaron gabe agindu zien tramoistei dekoratuak jasotzen hasteko.

02:59

Ateko sarrailan giltza sartu, bi bira eman eta etxean sartu zen. Ez zion eskumuturreko erloju dijitalari begiratu, baina berant izan behar zuela bazekien. Gaueko hamabiak inguru zirenean atera zen kalera, berak ere zer ote zitekeen ez zekien zerbaiten bila. Aldian behin kotxe bat iragaten zen: emakume bakarti bat, bikote amoltsuak, gazte alaiak barruan. Kalea ostera isiltzen zen.

Kanposantu paretik igarotzerakoan burnizko atea zabalik zegoela ikusiz barrura sartu zen. Hodei artetatik argitzen zuen ilargiaren argitan hilarrietan idatziriko izen eta datak errepasatzen igaro zuen denbora apur bat. Gudetan hildakoak eta ohetan hildakoak zeuden han. Tristura eta alaitasuna ezagutu zutenak. Une batez zoriona

lortu izan zutela uste izan zutenak, eta horretaz arduratu gabe une batez zoriontsu izan zirenak.

Guztia argituko lukeen arrazoiak nonbait egon behar zuela iruditu zitzaion. Baina ez zuen horretan gehiegi pentsatu nahi. Atera zen kanposantutik eta bere ibilbideari jarraiki zitzaion. Polizia kotxeak eta suhiltzaileen kamioiak igarotzen ziren, anbulantzia presatuak. Gero, kalea ostera isiltzen zen.

Galdera batetik bestera ibiltzera kondenaturik zegoela zekien, inork ez ziola behin betirako erantzunik emanen. Eta, halere, zeinen gustora etzanen zukeen burua maite zuen emakumeren baten sabelean. Tregoa baten bila. Ordu beranta izanagatik jendez gainezka zegoen kale batetara iritsi zen. Puten ditiei begiratu zien. Haien keinu eta proposamenei entzungor kalean gora segitu zuen. Eta amaierara iristean, kalean behera. Jadanik, eskaratzetako erdi itzalean zeuden putak ez ziren une batzu lehenago berak ikusitako berak; edo haien gorputzetan soilik erreparatu izanagatik, orain ez zen haien bisaia ezagutzeko gai.

Taberna bat zabalik zegoen izkina batetan. Bertan sartu eta edari bat eskatu zion barmanari. Ordaindu zuen, eta itzulitako diru xehea makina elektroniko batetan xahutu zuen, sabelean zeukan amodioari jaramonik egiteke. Makinak beti irabazten zion, baina berak aurreko partidan lortutako puntuazioa gainditzea zuen helburu.

Etxerantzako bidean ez zen ostera kanposantuan sartu. Katuak entzun zituen hormaz bestaldean. Berriro isildu egin zen kalea.

Etxean gelako mahai gainean amaitu gabeko lana zeukan zain. Keinu batez muzin egin zion lanari eta jantzirik oheratu zen. Zein ordu izan zitekeen ez zekien oraindik ez bait zion eskumuturreko erloju dijitalari begiratu. Burua etzan, eta sudurretatik behera itukin bero bat isurtzen zitzaiola nabaritu zuen. Lasterka abiatu zen komunera, burua gorantza mantenduz. Odol tantak lababo horituan erortzen ziren, kanilatik isurtzen zen urarekin nahastu aurretik. Ur hotzez igurtzi zuen garondoa. Gero ispilura begiratu zuen eta bere begietan ezagun egin zitzaion zerbait zegoela iruditu zitzaion.

Oharrak

Elur eternalen zuriaren pareko

«Ikasle kanibala» Parisetik Japoniara itzuli zen.– (84/V/23. Efe). «Ikasle kanibala» izenarekin ezagututako Issei Sagawa atzo ailegatu zen Tokiora, Air France-ko hegalaldi batetan Parisetik zetorrelarik. Berarekin batera erizain bat eta polizia bat zihoazen, biak frantsesak. Heldu ondoren, lekukoek diotenez zurbil eta lasai zegoen Sagawa, Japoniako hiriburuko ospitale psikiatrikorantz eraman zuten polizia patruila batek babesten zuen anbulantzia batetan. Gaztearen gurasoak ez ziren agurtzera joan. Issei Sagawa Literatura konparatuko ikasleak, 1981ean bere ikaskide bat hil zuen, Reneei Hartevelt, 25 urtetako neska holandarra. Gorputza aizto elektriko batez zatitu ondoren puskak jan egin zituen berak aitortutakoaren arabera, «aspalditik obsesionatzen zuen behar berezi bati» amore emanez. Gertaerak espektazio handia sortarazi zuen bai Frantzian nola Japonian. Berriak zeharo jota,

konpainia garrantzitsu batetako zuzendari zen gaztearen aitak dimisioa aurkeztu zuen. «Ikasle kanibalaren» Japoniarako itzulera diskrezio handiaz gertatu da aireportuan 70 kazetari eta argazkilari zai zeuden arren. NHK telebista kate nazionalak ez zuen gertaeraren aipamenik egin eguerdiko boletinean eta arratsaldeko prentsak juxtu aipatu egiten zuen jazoera baina argazkirik gabe.

Bederatzigarren biktima

Limako zatikatzaileak zortzigarren biktima bereganatu.– (86/1/26. Efe). Limako zatikatzaileak bere zortzigarren biktima eskuratu du zeren ostiralean Surco barrutiko erreten batetan aurkitutako burua ez bait dagokio lehenago aurkitutako gorputz enbor bati, hasieran pentsatu bezala.

Burua, duela 48 ordu hildako neska gazte bati dagokio Poliziak azaldutakoaren arabera.

Burua aurkitu eta ia horrekin batera emakumezko baten hanka bat aurkitu izan da Limako Ventanilla hondartzan.

Limako populazioa jazartu duten azken aurkikuntza makabro hauek baino lehen, zazpi pertsonaren heriotza leporatzen zion poliziak zatikatzaileari, horien gorpukiak Peruko hiriburuaren zona desberdinetan izan direlarik topatuak azkeneko bi asteetan.

Marta Garcíaren heriotza ostera, iragan abenduaren 5ean bere hanka eta besoak aurkitu eta bere senarrak identifikatua, ez da zatikatzailearen lana Poliziaren ustez.

Prentsak bestetik Londoneko «Jack destripatzailea» zoribeltzekoaren jarraitzailea den kriminal misteriotsuaren biktimatzat jotzen du Marta García, eta krimenak beraz bederatzi lirateke.

Zatikatzailearen ustezko beste zortzi biktimetatik bat ere ezin izan da identifikatu orain arte, gorputz enborrak baizik ez dira aurkitu eta. Bitartean misterioa da nagusi, Limako bestelako kezka-iturriak, bahiketak esaterako, bigarren planora iraganarazi duen krimen mordo honen inguruan.

Orain arte ezagutzen den gauza bakarra da zatiketak zerra batekin egin zirela eta ez dago

garbi ez eta pertsona bat edo gehiago diren egileak.

Sadismo sexuala bazterturik dagoela ematen du, auzitegiko medikuen ustez gorpukiak aurkituak izan direneko emakumezkoak ez bait zituen bortxatu, bai ostera horditu hil aurretik.

Poliziak duen teoriari jarraiki biktimetatik lau familia berekoak lirateke: adineko emakume bat, neskatila bi eta haur bat, beren urdailetan antzerako jakiak aurkitu eta data berdintsuetan hil bait ziren.

Guzti horren erdian prentsak era guztietako tesiak aurkezten ditu. Zatikatzeen kasua maitasun librea aldarrikatzen duten eta Justiziak ikertzen dituen sekta sasierlijiosoekin lotuz, heriotzak horietako sekta diaboliko batek burutu dituela iradoki da.

Azaldu den beste aukera bat izan da hiltzailea buruz jotako medikua izatea, Londoneko destripatzaileaz aipatu zen bezalaxe, azken honek lanbroaren erdian iharduten zuelarik lasaitasun osoz.

Inork ez ditu zatikatzailearen biktimen gorpukiak erreklamatu, batera desagertutakoen salaketarik ez dago.

Ustekabean auzokideak ikusi ez eta etxeak itxita gelditzen badira, esaterako, salaketa egiteko eskatu die Poliziak hiritarrei.

Birritan ikusi omen dute zatikatzailea: behin akabaturiko ustezko familiako neskatilen gorpukiak zabortegi batetara botatzen zituenean, eta ostiralean emakumezko buru bat jaurtikitzen zuenean erreten batetara.

Poliziak ostera ez du deus esaten balizko lekukoek aitortutakoaz.

Ez dirudi, ez eta ere, zatikatzaileak telefonoz deitu duenik biktimen zatiak non uzten dituen adierazteko, hasiera batetan aditzera eman zen bezala.

Zurrumurrua oinetan

Zuriak, asasinatze razial batetaz errugabeturik.– (86/XII/31. AP). New York-eko epaile batek hiru gazte zuriren kontrako asasinatze

akusazioa errefusatu zuen aurreko astelehenean. Aipatu gazteok 23 urtetako Michael Griffith gazte beltza hil zuten abenduaren 19-20ko gauean, pizzeria batetan honen lagun bi kolpekatu ondoren. Epaileak, nolanahi ere, kasua goi auzitegi batetara igortzea erabaki zuen epaia egiteko oinarririk dagoenentz erabaki dezan eta 25.000 mila dolerreko (hiru milioi pezeta baino gehiago) fiantza ezarri Jon Lester 17 urtetako gazte zuriari, eta 15.000 dolarretakoak Scott Kern 17 urtetako eta Jason Landrone 16 urtetako gazteei, hirurek zuten asasinatze akusazioa.

Komix

Hiru arma zituen gizon batek hogei pertsona hil Kaliforniako hanburgeseria batetan.– (84/VII/20. Efe). James Oliver Huberty-k, 41 urtetakoa, Estatu Batuetan pertsona bakar batek egindako hilketarik handiena burutu zuen hogei hildako eta hiru zauritu gertatu zirelarik.

Fusil automatiko batez, ehiza eskupeta batez eta pistola batez armaturik, «Mc Donalds» kate-

ko hanburgeseria batetako bezero eta dendatik hurbil zegoen jendearen kontra tirokatu zuen indiskriminatuki Huberty-k.

Auzokoek ziotenez ohizko droga kontsumatzailea zen eta «emaztea eta semealabek abandonatu zutenean erotu egin zen» James Oliver Huberty, azkenean poliziako elite tiratzaile batek akabatu zuen disparo zehatz batez.

Iparramerikako biztanleria hunkitu duen sarraskia Kaliforniako San Diego hiriaren hegoaldean gertatu zen, San Isidro eta Mexikorako autopistatik hurbil.

Arratsaldeko laurak inguruan (bertako ordua), Hubertyk, lanik gabe zegoen segurtasun goardia, «Mc Donalds» barrura sartu eta bertan zeudenen kontra hasi zen tiroka fusil automatikoa eta beste armak erabiliz.

«Hilak ditut mila eta beste horrenbeste hilko ditut» zioen zoraturik lehendabiziko biktimak odoletan hanburgeseriako zorura erortzen ari zirelarik. Huberty, praka berde militarraz eta kamiseta beltzez jantzia, hamar minutuz egon zen tiroka etengabe bezeroak izuturik lokaletik edozein tokitik ateratzen saiatzen ziren bitartean.

Bezero bi afaltzen ari ziren bitartean hil ziren, horietako bat lurrera erori zen eta bestea, bertan egondako lekukoek esan zutenez, plater gainera jauzi.

Hanburgeseria barruko biktimen kopurua berehala igo zen hamazazpira heldu arte, horietako batzu gurasoekin batera zeuden haurrak. Batzuk ihes egitea lortu zuten kristalak apurtu ondoren leihoetatik salto eginez, beste batzuk ostera ezin izan zuten ezer egin Huberty-ren tiroetatik salbatzeko.

Horren ondoren hiltzailea lokaletik irten eta jatetxearen inguruan zebilen beste pertsona baten bizitzari eman zion akabera.

Bizikletaz zihoazen gaztetxo bik burutu zuten hildakoen kopurua tiro berriren ondorioz hilik gertatu zirelarik.

Gertatutakoaren berri izandakoan poliziak bere efektiboak bidali zituen inguru hartara eta James Oliver Huberty-ri errenditzeko abisua eman zioten. Elite gorputzeko tiratzaileak aldameneko eraikinetan kokatu ziren.

Huberty «Mc Donalds»en babestu zen eta poliziak haren emaztea bilatu zuen artekari gisa

joka zezan hilketa gehiago ekiditzeko asmoz. Jatetxera bortxaz sartzeko prestaketak ere burutu ziren.

Emaztea bere senarrarekin hizketan hasi baino lehenago mira teleskopikoko fusila zuen polizia batek aldameneko eraikintza batetik tiro egin eta momentuan hil zuen Huberty.

Poliziaren bozeramaile batek zioenez sarraskiaren egilearekin hairremanetan sartzen saiatu ziren baina ezinezkoa gertatu zen, beraz, akabatu egin zuten. «Bere heriotzak beste zenbait jenderen bizitza salbatu zuen seguruen» adierazi zuen bozeramaileak.

Hildakoen artean lau hilabetetako neskatilatxo bat zegoen eta familia oso bat, aita, ama eta seme alabak.

Roger Hedgecock, San Diegoko Alkateak esan zuen «honek ez du zerikusirik ez terrorismo ez eta Joku Olinplikoekin. Antza osoa du neurotiko bakarti bat izatekoa».

James Oliver Huberty bizi zeneko apartamentu blokeko auzoko batek adierazi zuen, duela gutxi aldegina zela beste toki batetara, seme

alabekin alde egin zuen emaztearekin apurtu ondoren.

Dusty Brisenok –16 urtetakoa– esan zuen banatu ondoren Hubertyk drogak kontsumitzeari ekin ziola eta tendentzia biolentoak zituela. Demokraten bilera nazionalaren berri zuzenean ematen ari ziren iparramerikako hiru telebista kate nagusienek, programazioa eten egin zuten gertaeraren informazioa emateko.

Hamalau heriotzena

Egilearen oharra.– Zorrotza benetan sententzia. Zirrara ematen du pentsatze hutsak: lau laurden egin eta kentzea bihotza. Ez da hori supliziotan makalena. Lau zaldiri hanka-besoak loturik ezartzen zuten kondenatua; edota aurrez okertutako zuhaitz enborrei. Enborrak okerturik mantentzen zituzten sokak moztu, edota zaldiak zamalkarazi, eta irudika dezakegu gaizkilearen hezur eta haragiak hots lehor batez etsitzen, borreroa bere lana akabatzen.

Frantzia partean, Erdi Aroko tormentu hori erregeziden «ohore» eta esklusiba izan zen, ez zuen edonork modu horretan justizia hartzeko parada izaten. Zaldien sinbologia, osotasuna galtzen duen gorputzarena, arima gorputzaren babesik gabe erraturik ibiltzera kondenatua izan dadin.

Erregezidetan ospetsua izan zen François Ravaillac. Tourresen jaio zen sendi txiro baten altzoan 1578an. Henri IV.aren aurkako panfletoak eraginik nonbait, maisu eta kobentu batetan ere ibili zen Ravaillac-ek deliberatu omen zuen, erregek ezin bazuen hugonoteak katolizismora konberti zitezen lortu hiltzea merezi zuela. Eta horrela abiatu zen Parisa. Hain zen txiro, bertan errege hiltzeko erabiliko zuen labana lapurtu behar izan zuela. 1610eko maiatzaren 14ean erregeren karrozara igo eta bi labankadaz akabatu zuen. Konplizeak zituenentz jakiteko torturatu zuten, eta hamahiru egun berantago deskuartizaturik hil zuten. Garaiko grabatu batek erakusten du Ravaillac biluzik ohol batzuren gainean etzanik, bi zutoinek alborako mugimenduak eragozten dizkiotelarik. Hanka-besoetara

lotutako soken buruan zaldiak. Zaldi bakoitzak gidari bat. Borreroa kondenatuaren ezker partean dago, besoak altxata, bi eskuez kolpe mortala emateko prestaturik duen aizto handi bat eusten duelarik.

Modu horretan heriotz zigorra jaso zuen azken kondenatua Robert-François Damiens izan zen. Arrasetik hurbil dagoen Tieulloyen jaio zen 1757an, baserritar txiro batzuren seme, jesuita, jende aberats, parlamentuko kide eta dama galai baten zerbitzura egon zen urte batzuz. Louis XV.ari bere betebeharrak oroitaraztearren zauri bat egin behar ziola erabaki zuen. Bere atentatua jesuita eta jansenisten arteko gatazkaren erdian gertatu zen. Labain ttipi bat hartuta, garrantzi gabeko zauria egin zion Louis XV.ari eskumaldeko saihetsean. Harrapatu zuten, eta hasteko labaintxoa eutsi zuen eskua erre zioten, ondoren zauritara berun urtua eta olio irakina isuri zioten. Eta azkenik 1757ko martxoaren 28an eraman zuten urkamendira. Gizon sendoa izan behar zuen, lau zaldiek ezin izan bait zuten beren lana finitu; beste bi zaldiren laguntzak ere ez zuen lortu Damiensen adarrak soinetik bereiz-

tea. Borreroak zurdak mozteko baimena eskatu zuen, baina ez zioten utzi, kondenatuak gehiago sufri zezan.

1789ko iraultzaz geroztik, goitik behera erortzen uzten zuen aho zorrotzezko tramankulua erabili zuten heriotzera kondenaturik zeudenen buruak enborretatik bereizteko metodo bezala. Bi ideia nagusik bultzaturik onartu zen gillotina. Batetik kondenatuak larregi sufri ez zezan metodo ona zelako, eta bestetik erregea eta populua maila berean jartzen zituelako.

Bonaparte korsikarraren tropak Iberiako penintsulan ibili ziren artean afusilamendua erabili izan zuten beste ezer baino gehiago. Baina Cadizeko konstituziozaleek, lege eta kriminal arazoetan bezala merkatalgintzan ere berdintasuna lortu nahian lurralde osoan zeuden legeak parekatzeko kodigoa atera zuten. Horren arabera norbait atxilotu aurretik epailearen agiria behar zen; era berean atxiloturikoa hurrengo hogeitalau ordutan aurkeztu behar zen epailearen aurrean; detenituak lekuko guztien esanak eta izen-abizenak ezagutzeko eskubidea zeukan. 1811.eko apirileko dekreto baten arabera herio-

tzera kondenaturikoak urkatu beharrean garrotearen supliziora kondenatzen zituen. Itxura denez, gizarte maila desberdinei egokituriko garrote moetak zeuden. Garrote «arrunta», jende xehe eta krimen «arruntak» zigortzeko erabiltzen zen; garrote «vil» delakoa berriz krimen izugarrien egile zirenak punitzeko; eta azkenik garrote noblea, nobleziako jendeek egin krimenen ordaina jasotzeko.

Frantziarrek penintsula utzi eta hurrengo hogei urteak, lehen karlistada bitartean, urte gatazkatsuak izan ziren. Dekretoak, eta aurreko guztia indargabetzen zuten kontra-dekretoak. Gartzela desberdinen funtzioa finkatzea. Interesgarria da ikustea 1812ko urriaren 9ko «Reglamento de las Audiencias y Juzgados de Primera Instancia» delakoaren arabera ordurarte Valladolideko chancilleriaren menpean zeuden «provincia vascongado»ak Iruñeko entzutegiaren menpe ezartzen direla.

Bizkaia aldean gertatu zen «Zamakolada»ren esplikazio gisa ematen den arrazoietako bat Don Francisco Aranguren y Sobrado Bizkaiko Kontsultore perpetuoak argitara emandako arautegiak

sortu deskontentua da. Sarrera-hitzean kexu agertzen zen frantziarrekiko azken gudaz geroztik probintzia lapur eta gaizkilez beterik zegoela. Bideetan, bide bazterretan, etxeak egun argiz erasotzen omen ziren, inolako beldurrik gabe, western jeneroko filmeetan bezala maiz herrietara tiroka sartu, biztanleak iraindu, ateak behera bota eta barruko guztia harrapatzen zuten. Don Franciscoren ustea zen juizioen atzerapenak bazuela eraginik, zeren «sei urte eta gehiago irauten» bait zuen itxaronaldiak; eta gainera ematen zen gaztigua ez zen behar bezain gogorra. Arautegi berriaren arabera, sententzia hogeitamar egunen buruan irakurri behar zen, berau apela ezina izanik, beraz kunpli beharrekoa. Kondena berriak honelakoak ziren: lapurreta eta lapurretaren fruituak gordetzeagatik hamar urtetako gartzelaldia Afrikan; heriotz zigorra berriz lapurreta odoltsuen egile eta lapur ospetsu zirenentzako gordea zegoen. Erregeak zazpigarren artikulua leundu zuen esanez ez zela nahikoa zigor larriena aplikatu ahal izateko aztarna hutsak oinarritzat hartzea, ez eta tor-

mentuaren bidez lortzea beharrezko informazioa.

Halere, bada garai haietan pertsonalki torturatzen zuen juez baten aztarnarik. Galinsoga zen juez horren izena.

Jose Larreinaren krimenak kontatzen dituen bertsoaren arabera, badirudi lehen krimena guztiz frogatua zegoela. Bertsolariak behintzat datu ugari ematen du, eguna eta urtea ere zehazten dituelarik: 1825eko urriaren hamahiruan. Beraz, hirurte konstituzionala amaitu eta urte pare baten buruan, Fernando VII.a boterean zegoela. 1814etik 1820ra bitarteko bere aurreko botere aldian hogei heriotz kondena baino ez zirela eman adierazten du ikerketa batek. Baina 1823tik 1833a bitarteko aldian sekulako garbiketa egin omen zuen Fernando Vll.ak: 1825ean 1.828 heriotz zigor izan omen ziren. Hala ere, ez dakigu Larreinak Altzibarren egin omen zuen krimen horretatik harrapatu bitartean zenbat denbora iragan zen; ez eta harrapatu eta bizia kendu zioten arteko tartea zenbatekoa izan zen.

Dena dela, ez dirudi XIX. mendearen lehen erdian erregeziden esklusiba zen Erdi Aroko su-

plizio hori jasanarazi ziotenik Jose Larreinari. Nola ulertu orduan bertso apokrifoan agertzen den «lau laurden egin eta kentzeko biyotza» hori?

Laugarren estrofan agertzen da lehen aldiz «urkatu» hitza, bertsolariak Larreinaren ahotan honako erreflexioa jartzen duenean: «aisa merezi nuen bertan urkatzia». Krimen horregatik soilik heriotz zigorra merezi zuela adierazteaz gain, gerora jasotako sententziaren oihartzuna ere izan daiteke. Baina aurrerago, sententziaren berri ematen duenean, estrofa amaieran zera dio: «ai! ura urkaberako aiziaren otza!» (bertso honek aditzera eman dezake postumoa dela bertsolariaren lana, urkabera eraman zuteneko datua eskeiniz; baina guztiz posible da modu berean figura literarioa izatea eta urkabera joan beharrak sortutako hotzikara adieraztea). Hiru esanahi desberdin egozten dizkio Azkuek «urkabe» hitzari: garrotea, sokatik eskegitzea eta sententzia kunplitzen deneko lekua, hau da, urkamendiaren bariantea. Baina lau laurden egitearena oraindik ere argitu gabe daukagu.

Pistarik eman dezaketen bi kasu ditugu. Lehena Serrallonga bandolero katalandarrarena da, bere heriotzaren ondoren eta autoridadeak atzetik zituenean ere mito bihurtu zen bandolero-aristokratarena. Bere andregaiarekin ibili zen ihesean, garaiko txakurrak atzetik zituela, eta beren muturren aurrean behin eta berriz eskapo eginez, herritarren onarpen trufatsua sortuz eta autoridadeen lotsa eraginez. Azkenerako bere kideek salatu eta harrapatu egin zuten Serrallonga. Andregaiak bizia salbatzeko esperantzaz zekitzan guztiak kontatu zituen, baina autoritateek Serrallongaren ahotik jakin nahi zuten bera lagundu zutenen zerrenda. Serrallongak ez zuen hastapenean kolaboratzeko intentzio batere erakutsi, baina tormentuaren bankuaren bistan, noble, elizgizon eta jende xeheen artean, hala nola artzai zein baserritarren artean zituen laguntzaileen izenak eman omen zituen. Kondenatu zuten borreroak lepoa moz ziezaion, baina aurretik zigorraz ehun kolpe eman zioten. Odoletan zegoela bi belarriak moztu, eta orduantxe jarri zuten borreroaren aizkorapean. Ondoren, *bere gorpua zatikatu egin zuten,* burua lantza baten

puntan guztien bistara eta eskarmenturako jarriz (Mitikileko erretoreaz oroitzen gara). Guzti hori 1634ean gertatu zen. Larreinaren garaia baino bi mende lehenago beraz. Horregatik, Serrallongarena adibide adierazgarria bada ere, egokiago litzateke denboran hurbilagoko beste kasu bat topatzea.

Jaime Alfonso Juan, «El Barbudo» goitizenez, bandolero ospetsu eta odoltsua izan zen. Laborari soil zelarik lapur batek labanaz eraso egin eta bere burua defendatzerakoan erasotzailea hilik suertatu zela diote. Bere sendikoen kontseiluei jarraiki mendira ihes egin zuen, bertan bandolero talde batekin elkartuz. Azkar, Jaime Alfonso talde-buru bilakatu zen eta karrera distiratsua egin omen zuen bere bide-lapurren gidari gisa. Frantziarrak iristerakoan, aberriaganako amodioa pizturik Napoleonen soldaduei eraso egin zien, halako moduz, non gerra amaitzerakoan kondekoratua izan bait zen, eta berriro laborari lan lasai eta gogorrera itzuli zen.

Ez zuen asko iraun «Bizarduna»k aurpegiko ileak hazten utzi baino lehen. Hirurte konstituzionaleko garaian, bere burua katoliko sutsu eta

Fernando VII.aren defendatzaile amorratu gisa agertuz, gerra egin zien liberalei. Eta erregek boterea berreskuratu zuenean, lasai asko itzuli zen bere laborantza lanetara absolutisten ohoreak jasotzeko asmoz. Bai eta jaso ere. Baina ez zen nonbait bandolero-ohia erregezaleen aliatu presentableegia izango, zeren Murciako alkatearen deia jaso zuen hiri hartara aurkez zedin. Gartzelara sartu zuten, epaitu egin zuten, eta 1824eko apirila edo maiatzean urkatu, ondoren *bere gorpua zatitu* eta burua, kaiola moduko batetan sartuz, bere jaioterrira igorri zuten.

Beraz, horrelako zerbait izan zen Jose Larreinaren patua. Urkatu egin zuten, garrote vil delakoaz edo lepotik zintzilik, eta gero gorputza lau laurden egin eta bihotza kendu zioten. Agian, kutxa batetan sartu eta Mendarora bidaltzeko.

Galdera asko geratzen dira erantzun gaberik. Ez dakigu Larreina bide-lapur bakartia izan zen, edota talde batekin ibili ole zen. «Nitzaz eskarmentatu balitez bestiak...» dioenean nortaz ari ote da bertsolaria? Jendeaz, ala agian berarekin aritu baina ihes egin zuten bere kideez? Auskalo. Bertsoak testamentu, konfesio eta damutze

agerpen gisa idatziak daude. Baina ez dirudi Larreina bera bertsolari izan zenik. Damutze agerpenaren bidez errukia lortzearren bere senditarteko norbaitek enkargatu ote zituen? Ez dakigu... Historiaren adabakien artean bertso batzu baino ez dira geratu Jose Larreinaren testigantza gisa... Baina, nor izan zen Jose Larreina?

Odolaren usaina

ETA militarreko ustezko partaidea hilik Donostian poliziarekiko enfrentamentuetan eta beste hiru atxiloturik.– (82/IX/27. El País). Fernando Barrio Olano, ETA Militar erakunde terroristaren Sega komando legaleko ustezko arduraduna hilik gertatu zen atzo, goizaldeko bostak inguruan, Donostian, poliziaren tiroen ondorioz. Komando bereko beste hiru pertsona gehiago Intxaurrondoko auzo donostiarrean atxilotu zituen lehentxoago poliziak, casa Kayla izeneko pasabidean. Poliziak Browning pistola bat, ehiza eskupeta bi, mira teleskopikodun bi fusil, munizio ugaria, transmisio materialea eta zenbait

txosten aurkitu ditu. Txostenetan Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Logroñon burutu beharreko atentatuen berri ematen da eta eta horrez gain jeneral, ofizial eta azpiofizialen uniforme militarrak era topatu dira.

Mando Unico para la Lucha Contraterrorista (MULC)ko agiri batetan adierazten da Fernando Barriok zenbait tiro egin zituela pistolaz polizien kontra, azken hauek dirudienez lehergailuak erabiliz, bere etxeko atea bota zutenean, Donostiako San Martin kaleko 51 atariko seigarren etxebizitza hain zuzen ere.

Hemeretzi tiro, horietako zazpi bihotzean, izan ziren Iñaki Ojeda preso-ohiaren heriotzaren kausa.– (84/II/17. Egin). Badirudi Poliziak hemeretzi tiroz zulatutako Iñaki Ojedaren heriotza eta Juan Manuel Piriz eta Juan Manuel González-ek izandako zauri larriak, hala nola beste zenbait pertsonen atxiloketa, horietako batzu Basurtoko Ospitale Zibilean ingresatu behar izan dituztenak, izan direla bart Barakaldoko Cruces auzoan izandako «bilaketa eta miaketa» operazio zabal batetako ondorioa.

Rafagak, isiltasuna, rafagak. Zorigaiztoko hiru hitz hauek bil dezakete, Cruceseko hiru auzokide bat datoz horretan, atzo goizaldeko bostak pasatuxe zirenean «El Llano» auzoko Grupo Euskalduna kaleko 80, 4. ezkerreko etxebizitzan gertatutakoa.

Zenbait denbora lehenagotik, batzuren esanetan orduak, polizia mordoa «orrazketa» lan sakonetan zebilen bilatutako pisuaren inguruko blokeetan. Poliziak bilketa horretan hiru pertsonaren argazkiak aurkezten zituen, gazteak zirela besterik gogoratzen ez dela. Gutxi gora behera 4,30 edo 4,45-ren inguruan, egunkari honek auzokoen bidez eta azkenik Txema Montero abokatuaren bidez burutu ahal izan duen gertaeren berregituraketaren arabera, Polizia Nazionaleko, GEO taldeetako eta Cuerpo Superior de Poliziako poliziek Euskalduna Taldeko 80 etxea, 7. blokea, kokaturik dagoeneko eraikina inguratu zuten, ate joka ibili ziren zenbait pisutan laugarrenera heldu arte, aldez aurretik bostgarrenera joanak zirelarik aldi berean eskuma eta ezkerreko etxebizitzetan deituz, bilatutako gazteak azkenik han aurkituz. 4. ezkerraren aldameneko

auzokideak gogoratzen du polizia hesi baten atzetik, batzu hizketan ari zirela jotako atea irekitzera hurbildu ziren pertsona birekin, eta atean inolako kalterik ez zutela egin. Auzoko berberak dio elkar hizketa «kasu hauetan ohizkoa dena» izan zela eta berehala polizietako batek bere pasiloaren atzekaldera urruntzeko esan ziola. Handik une batzutara, goizaldeko bostak eta bost izango ziren, zaratak entzun ziren eta jarraian «rafagak, isilunea, rafagak» bost bat minututako epean. Beste auzoko batzuk adierazi zuten hau gertatzen ari zelarik «hil itzazu, hil itzazu» hitz izugarriak entzun zirela.

Honela zioen poliziaren oharrak: «Gaur goizeko bostetan, Cruces-Baracaldo auzoan, Llano kalea 80-4. ezkerra, Nagusigo honetako eta GEO-ko partaideak miaketa bat egitera zihoaztela, etxebizitzaren barrenetik tirokatuak izan dira, erasoari erantzunik hau izan da ondorioa. Hilik gertatu zen: Ignacio Ojeda Martin, «Iñaki» ezizenekoa, Portugaleten (Bizkaia) jaioa, 63-5-4ean, Ignacio eta María Asunción-en semea, ezkongabea, ikaslea, Portugaleteko Gregorio Urquiano

kaleko 24-ean dagoen gurasoen etxebizitzatik alde egina».

ETA (M)ko ustezko bi partaide hilik eta Jesús María Zabarte atxiloturik atzo Hernanin.– (84/VI/16 . Egin). Agustín Arregi Perurena hernaniarra eta Juan Luis Lekuona Elorriaga, busturiarra, ETA militarreko ustezko partaideak hilik gertatu ziren atzo goizaldean Hernanin burutako ekintza polizial batetan, bertan Jesús Mari Zabarte Arregi ere atxilotua izan zen hala nola egintza poliziala burutu zeneko etxebizitzaren jabeak diren Miner senaremazteak.

Ekintza horretan Antonio Aguayo Jiménez goardia zibila ere zauriturik gertatu zen lau bala zulorekin.

Zailtasun handiak daude gertaerak nola izan ziren jakiteko, gertatutakoaren ikuspegi global bat eman dezaketen lekuko gutxi dagoelako, hiru ordutan zehar luzatu bait zen.

Elias Miner, etxebizitzaren jabe diren senaremazteen hiru semeetako bat, operazio polizialaren lehendabiziko momentuak bizitu zituen ba-

rrutik eta honela kontatu zizkigun oraindik pasatakoaren urduritasuna nabaritzen zitzaiola.

«Sartu eta zera esan digute: denok gora. Haiek gela batetan zeuden eta gu beste batetan. Hiru anaia geunden. Goizaldeko 4,15 izango ziren. Atea bota digute eta tiroka hasi dira, denok eskuak gora eta horrela. Hasieran gu han gelditu gara baina gero irtenarazi gaituzte eta auzoko batzuekin joan gara.

–Zenbat jende zegoen etxe barruan, zuetaz aparte?

–Atzo gauean bat zegoen eta gero sartu dira.... ez dakit, ez dakit inor sartu ote den.

–Noiz hasi dira disparoak?

–Sartu diren momentutik. Haiek zeudeneko gelan baten bat zegoela ikusi dute eta tiroka hasi dira. Gu ikaratu egin gara eta horrela esan digute, «hara, irten kanpora, eta zurekin daudenak ere». «Pistola batekin ere mehatxu egin digute» gehitu du Eliasek. Gero alde egin dugu eta besterik ez. Orain neu etorri naiz.

Poliziaren oharra: «Frantziatik Gipuzkoako probintziara duela gutxi etorritako ETA militar erakunde terroristako komando liberatu bat aur-

kitu eta atxilotzeko Estatuko Segurtasun Gorputzek Gipuzkoako probintzian aurrera daramatzaten aktuazioen barruan, Goardia Zibileko indarrek, gaur goizaldeko ordu biak inguruan, aipatu komandoaren azpiegitura izateko susmagarria zen etxebizitza baten miaketari ekin diote. Goardia Zibileko indarrak tiroz hartu dituzte etxebizitzaren barrenetik, Antonio Aguayo Jiménez goardia zibila hiru balaz zauritua izan delarik. Donostiako ospitale batetara eraman eta une honetan medikuen eskutan dago, egoera larrian. Eraikina inguraturik komandoa zegoen etxebizitzaren solairuko auzokideak ebakuatu dira eta sartu direneko lehen gelan Jesús María Zabarte ETA militarreko partaide liberatua atxilotu dute, komandoko arduraduna. ETAko beste partaide biek, beste gela batetan babesturik, entregatzeko eskariei erantzun gisa tiroka segitu dute, Jesus María Zabarte komandoko arduradunak ere entregatzeko esan dielarik».

Zabarteren aitorpenaren arabera, etxebizitzan Goardia Zibila zegoela konturatu zenean, etxeko zuloan izkutatu zen eta bertatik entzun zituen jipoitzen edo torturatzen ari ziren baten

garraisiak, honek azkenean zuloa bazegoela aitortu zuen. Zabarte aurkitu eta atxilotu ondoren ikusi zuen UAR-etako partaide batek granada bati segurua kentzen ziola, aldameneko gelan zeuden bere lagun biei botatzeko asmo argiarekin. Une horretan komandoko ustezko arduradunak bere lagun biekin hitz egingo zuela esan zuen baina, adierazi zuen, utzi ez ziotenez ez ziola inoiz errenditzeko esan.

Lucía Urigoitia Goardia Zibilaren tiroz hilik Trintxerpen.– (87/VII/24. Egin). Lucía Urigoitia Ajuria, Bizkaiko Otxandioko 28 urtetako neska gaztea hilik gertatu zen atzo Goardia Zibilaren tiroz, ostegun gauean eta atzo goizean Gipuzkoan buruturiko ekintza polizial batetan.

Gobernu Zibilak emandako bertsioaren arabera, poliziaren ekintza hauek hamarrak aldera hasi ziren, Trintxerpen jarritako kontrol batetan Bilboko matrikuladun «Renault-12» batetan zihoazen Ignacio Erro Zazu eta Estanislao Etxaburu lokalizatu eta atxilotu zituztenean.

Geroago Rentería kaleko pisu batetan izan zen ekintza poliziala eta bertan Lucía Urgoitia

hilik gertatu eta Alicia Pereira eta Manuel Muiños atxilotu zituzten.

Aipatu jazoerak gertatzen ari ziren bitartean irratizale batek Goardia Zibilak erabili ohi duen frekuentzian entzun ahal izan zuen haietako bat eraikinaren inguruetan zeuden goardiekin hitz egiten zuela eta honelako esaldiekin animatzen zituela «ea denak hiltzen dituzuen eta gero mozkorra hartuko dugu».

Kontroletan katxeoak eta geldiketak etengabeak ziren eta Udaltzaingoari eta laguntza medikoaren beharrerako hurbildua zen anbulantzia bati ere ez zieten pasatzen utzi. Bertan egondako lekukoek eta DYAko partaideek esan zutenez goardia zibilek ez zieten gertaeren tokira hurbiltzen utzi, inolako anbulantziarik ez zela behar esanez «zauriturik ez dago eta».

Gobernu Zibilak emandako gertakizunen bertsioan ostera, «atea zabaltzeko agindua behin baino gehiagotan eman ondoren, bertan zeuden goardiak tiroz hartu zituztela barrukoek» adierazten da. «Unitatearen buruan zen goardiak balen kontrako txalekoan hartu zuen tiroa eta

Lucía Urgoitia Ajuria aurrekoaren atzetik zegoen numeroaren tiroen ondorioz hil zen».

Hildako etakideak, garondoan «bete betean» emandako tiro bat hartu zuen.– (87/VII/25. El País). Lucía Urigoitia Ajuriak, ustezko ETA Militarreko partaidea, joan den osteguunean eta polizi operazio zabal baten barruan Pasaia San Pedron hil zena, garondoan tiro bat hartu zuen, «bete bertan» egina, egunkari honek kontsultaturiko iturri fidagarriek adierazi zutenez. Ustezko etakideari egindako autopsiak frogatzen du zentimetro gutxitara tiro mortal bat jaso zuela. Balak egindako zuloan erretako ertzak daude, bete betean egindako zulo baten ezaugarria, eta gaztearen ilearen aztarnak.

Ikerketa judizialaren beste iturri batzuk onartu egin dituzte tazitoki datu hauek eta kasuaren dilijentziak burutzen dituen Donostiako epaileak ez ditu ezeztatu.

Lucía Urigoitiari distantzia laburretik emandako tiroa konfirmaturik.– (87/VII/30. Egin). Lepoaren alboatzekaldetik sartu zen

proiektila «nahitanahiez mortala» zela adierazten du autopsiak. Lucía Urigoitiari egindako autopsiak adierazten du bi tirok egindako lau zulo dagoela –horietako bat «distantzia laburretik» egin zen– azken hau «nahitaez mortal»tzat jotzen delarik auzitegiko medikuek egindako txostenaren arabera. Txostenak dioenez lehendabiziko proiektila, «distantzia luzetik» egina, alboetako ertzaren azpitik sartu zen eta eskumako hipokondrioaren altueran, kanpoatzekaldeko aldean, irten. Azalpen mediko-forenseek diotenez tiro honen aurrikuspena «oso larria» da, heriotza ere ekar dezakeelarik baina «ez bapatean». Bigarren proiektila, lepoko eskumako alboatzekaldetik sartu eta ezkerreko tenporaletik irten zena, «distantzia laburretik» bota zen eta horren aurrikuspena «nahitaez mortala» da. Informazioarekin batera gehitzen den zirriborroan ikus daiteke «lepoaren alboatzekalde» hori eta kokotea oso gertu daudela. Azpimarkatzekoa da komunikabide gehienek forenseen txosteneko zehaztasun semantikoaren aurrean adierazitako lasaitasuna, «ber-bertatik» eta «bete betean» testuak baztertuz eta tiroa «distantzia laburretik» emanda be-

zala definituz. Hala ere txostenak berak azaltzen du distantzia labur hori, ez dela, kasurik hoberenetan ere 60 edo 70 zentimetrotakoa baino handiagoa izaten.